

Frantzisko Ondarra
Aulestia: 1833. urteko testua

* * *

Separata Litterae Vasconicae 7
Labayru Ikastegia
1999

AULESTIA: 1833. URTEKO TESTUA

*Frantzisko Ondarra**

* Euskaltzaina

LABURPENA

Aulestian 1833 urtean Ostiral Santu egunean emanikako sermoi luze bat ezagutarazten da lan honetan. Egilea nor izan zen ez dakigu, baina esan dezakegu ederki menderatzen duela hizkuntza. Misiolaria izan zitekeela suposatzen dugu, beraz erlijioso. Gauza asko samar zuzendu eta erantsiak izan direlarik, ahalegindu gara lehen idazketaren egileak erantsi eta zuzenduak hautatzen. Grafia, fonetika eta beste arloetan darabiltzan eta jakingarri izan daitezkeen zenbait gertakari aurkezten dira, eta hitz eta adizkiek osatutako zerrendak eskaintzen dira. Erants dezagun Larramendiren aztarnarik ez dugula aurkitu.

RESUMEN

El texto da a conocer un sermón largo pronunciado el día de Viernes Santo de 1833 en la puebla vizcaina de Aulestia. Se desconoce su autor pero era un buen conocedor del idioma vasco. Podría muy bien tratarse de un religioso misionero. Como muchos pasajes aparecen con correcciones y añadidos se ha optado por ofrecer la primera redacción. Se muestra la grafía y la fonética usadas así como otros muchos aspectos que se considera interesante sean conocidos y listas de palabras y formas verbales. Anotemos que no hemos encontrado influencias de Larramendi.

RÉSUMÉ

Le texte fait connaître un long sermon prononcé le jour du Vendredi Saint 1833 dans la ville biscaïenne d'Aulestia. On ne connaît pas son auteur, mais on sait qu'il connaissait bien la langue basque. Il pourrait très bien s'agir d'un missionnaire religieux. Étant donné que de nombreux passages ont des corrections et des textes ajoutés, il a été décidé d'offrir la première rédaction. On montre la graphie et la phonétique utilisées ainsi que d'autres nombreux aspects que l'on estime intéressants de connaître tout comme des listes de mots et de formes verbales. Remarquons que nous n'avons pas trouvé d'influences de Larramendi.

SUMMARY

This is a sermon given on Good Friday 1833 in the village of Aulestia, in Vizcaya. It is not known who wrote it, but they clearly knew the Basque language well. It might well be the work of a missionary. Corrections and additions were included in many paragraphs, but the text reproduced here is the original wording. The spelling and phonetic system used are highlighted, along with other points of interest and a list of words and verb forms. It should be noted that no evidence has been found of any influence of Larramendi.

Badira zenbait urte Iraizozko Polikarpo aitak –Agustin Zarranz-jaiotzez–, nafar euskaltzainak euskal eskuizkribu multzo bat eskuratu zigula, multzoa osatzen zuten testuak argitara emango genituelako itxaropen eta nahiarekin. Saiatu gara Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi eta Nafarroan XVIII eta XIX. mendeetan moldatutako testu horiek –prediku, kristau ikasbide etab.– ezagutzera ematen. Horien berri eman genuen *Eusker*a Euskaltzaindiaren agerkarian (ik. 1981, 349-365 eta 633-649, batez ere 635-636). Bizkaierazkoetan Fr. Migel, XVIII-XIX mendeetako karmeldarra, da ugariena ailegatu zaizkigun sermoietan, eta argia ikusteko prestaturik daude hauek, argitaraturik daudela horietako bat (*Iker-6*, 1992, 367-391) eta testu guztiak hartzen dituen lan bat (*Eusker*a, 1992, 545-555). Aulestikoaren txanda da orain.

Euskararen lekuko horiek nola lortu zituen, nork eta noiz eman zizkion eta nondik etorri ziren ez zen oroitzen 1979an gure euskaltzaina. Harritzekoa bada ere, hala ere ulergarria izan daiteke, kontuan hartzen badugu urte asko egin zituela Erroman kaputxinoen idazkari nagusi bezala, beste mundu bateko lanetan murgildurik. Igorretar Julian aitari gaude entzunik horietako anitz –bizkaiera eta gipuzkerazkoak noski– Bizkaia aldetik ekarri zituela, karmeldar batengandik iritsirik, Dimako Fernando aitak –Saturnino Soloeta jaiotzez– 1927an edo, Txile utzi eta Txinako misioetara zihoala Euskal Herritik itzuli bat egin zuenean.

1. TESTUA

Bere gaia Jesukristoren nekaldia da eta bere helburua entzuleen bihotzetan bekatuaren damua sorraraztea. Hamasei orrialdetan hedatzen da, hari zuriz joserik daudela denak batean. C. 212 mm. luze eta c. 155 mm. zabal dira orrialdeak eta honela banatzen dira: Bi zenbatu gabeak 1-13 zenbakiz hornituak, bat zenbaki gabea. Testua 1-13 eta hurrengoan dago idatzia, hasierako orriko bi orrialdeak azal edo estalki gisa ezer idatzi gabe, “Sermon de Pasion en Aulestia año 1833” izan ezik, gelditu zirela eta sermoia 1 zenbakidun orrialdean hasten zela. Gure edizioan 15 eta 16 zenbakiak daramatzate hasierako bi orrialde horiek, eta garbi ikusten da predikua amaitu ondoan eta horko zenbait pasarteren aldaera eta osaga-

rriz izan zirela beteak gero. Testua hedatzen den 14 orrialdeetan ere aldaera, gehigarri eta berridazketa asko dago erantsirik eta ezabaketa ugari lerro arte, bazter eta zokoetan behin baino gehiagotan latinezko *vel* ‘edo’ juntagailuaz baliatzen dela egiteko horretan.

2. NORK, NOIZ ETA NON

Aulestin 1833 urtean predikatua izan zen hitzaldia nork moldatua den ez dakigu. Misiolaria izan zitekeen, sermoiaren amaian, misiolari gisara, gurutzea eskue-tan hartu –“Aqui tomar la cruz” 14,2an dio– eta gartsuki hitz egiten die entzuleei amaieraraino beren bekatuen zinezko damua har dezaten, garbai eta damuaren erdiestea baita hain zuzen berbaldi luze-luzearen helburua. Ostiral Santu egunean botaa izan da noski, Jesusen Nekaldia baita gaia. Ostegun Santu egunean ere hitz egin zien, honako hau irakurtzen baitugu: “ipini cituban (Jesu christoc) gauza guztijac estadu onian *atzo arrasaldian* enzun zenduban leguez” 4,2. Egilea zahar samarra ote zen susmoa dugu, zenbait gauza idazteko modua hartzen dugula kontuan horretarako. Ik. *Grafia* atalean hitz hasieran *u*-egin beharrean *v*-ipintzeko duen joera, *r* egiteko modua, *ch* digrama *c* grafemaren ordeztu erabiltzeko ohitura, eta erdaraz ere “oja (sic) quarta” idazten duela. Bizkaiera darabil, jakina baina besteri uzten diogu arlo hau zehatzago ukitzeko ardura.

Aulestin 1833 urtean izan zen predikatua. Aulesti Bizkaian dago kokaturik eta gaur egun bertako udaletako bat da. Baina ez da beti horrela izan. Espainiako Historia Erret Akademiak 1802.ean argitaratu zuen *Diccionario* delakoan Murelaga izeneko elizaurreko zati bat da, hau esaten baitzaigu: “En el casco de la puebla hay 52 casas, las demás están esparcidas..., y aún (sic) suele entenderse con solo el nombre de Auleztia (sic) la anteiglesia toda de Murelaga”. Elizaurreak 1140 biztanle ditu. Madozen hiztegiaren arabera Auleztia (sic) *puebla*-k 308 bizilagun ditu. Aulestiak 522 biztanle ditu 1857 urtean (*Nomenclátor de los pueblos de España*, 1858, 946 orr.).

3. HIZKUNTZAREN INGURUAN

3.1. Grafia eta fonetika

3.1.1. Bokalak

Hitz hasieran *v*-idatzi ohi du *u*-egin beharrean, bi salbuespen izan ezik: “*uste*” 7,4 eta “*ulee*” 13,3. Hitz bakar batean ikusi dugu *y*-grekoa hitzaren hasieran, hots, “*ea*” partikularen aldaera fonetikoa den “*ya*” 7,1 etab. berban. Jakina, gaztelaniazko *ya* ‘jadanik’ 1,2 etab. ere horrela idazten da. Adizki hasieran ere ez da *y*-ageri, *j*-baizik: “*jacon*” ‘zitzaion’ 8,3 etab. Eta gauza bera gertatzen da hitz barruan, *i* eta beste bokal baten artean *-j-* sortzen delarik: “*guztijoc*” 1,1, “*bicija*” 1,1, “*agrabijo*”

2,2, “*fijadore*” ‘fiadore’ 1,2, “*eguijozu*” ‘iezaiozu’ 5,2, “*leijo*” ‘liezaioke’ 12,4, etab. Gertakari hau beti jazotzen da adizkietan, ez ordea hitz arruntetan.

U eta bokal artean *b* epentetikoa sortzen da lexemari morfemaren bat erasten zaionean: “*buruban*” 1,2, “*christinaubac*” 1,2, salbuespenik badagoela, hala nola “*galduac*” 10,1.

E edo *o* + *a* sekuentzia *ia* edo *ua* bilakatzen da: “*caltiac*” 1,1, “*gainian*” 2,2, “*biarrac*” 1,2, “*dabenian*” ‘duenean’ 8,3, “*zelacua*” 1,2, “*agrabijuari*” 2,2, “*daguan*” ‘dagoen’ 1,2, “*dua*” ‘doa’ 12,4.

Maiz ageri dira *a* eta *e* bokalak ÷ikoizturik: “*escolaan*” 2,2, “*mundutaar*” 2,3, “*pecatubean*” 2,2, “*eguinean*” 3,1, “*egozanean*” 3,4.

3.1.2. Kontsonanteak

Guk XVIII. mendekotzat, XIX.ean ere denbora zati batez erabiltzen dela, jotzen dugun *r* grafema egiteko modua jarraitzen du. Zenbait hitzetan *ch* darabil *c* berriagoaren ordeztu: “*christinaubac*” 1,1, eta “*Jesuchristo*” 2,2, Ikus ere “*oja (sic) quarta*” 16,5.

Ongi bereizten ditu eta zuzen erabiltzen *s*, *z* frikariak eta *ts*, *tz* afrikatuak. Baina *ts* eta *tz* ez dira ageri askotan espero den hitzetan, horien ordeztu *s* eta *z* azaltzen direla: “*arrasaldian*” 4,2, “*eusi*” 6,3, “*oz*” ‘hotz’ 5,4, “*bijozac*” 7,2. Zalantza ere ikusten da grafian: “*eracutsi*” 8,3, baina “*eracusi*” 6,2, “*batzuc*” 13,3, baina “*bazuc*” 13,3. Ez da arraroa *tc* digrama: “*guertataen*” 5,2, “*ataera*” 7,1. Adizkietan ez da inoiz *ts* ageri, *s* baizik: “*deusa*” ‘dio’ 3,1, “*eusan*” ‘zion’ 2,4, eta *tz* behin aurkitu dugu: “*jatzun*” ‘zitzaizun’ 2,4, baina “*jazuzan*” ‘zitzaizkizun’ 4,4.

3.2. Morfologia eta sintaxia

3.2.1. Izenaren zenbait kasu

Zenbait kasu aurkezten ditugu bakarrik. Sozietibo plurala *-ekin* da: “*zizpurubequin*” 2,4, “*Guizon galdubequin*” 11,2 eta bi aldiz ikusi dugu *-akin*: “*escubaquin*” 9,2, eta “*eurakin*” 8,1. Genitibo singularra laburtu gabe egiten da: “*Jangoicuaren*” 1,2. Datibo plurala *-ai* da: “*ichubai*” 4,1. Motibatiboa, *-gaitik*: “*Judegutarrac gaitic*” 14,2. Hurbiltze adlatiboa, *-uz* eta *-ganuz*: “*Mendiruz*” 13,1, “*atceruz*” 8,2, eta “*beraganuz*” –Jangoikoaz ari da– 7,3.

3.2.2. Erakusleak eta izenordain pertsonalak

Jakingarrienak edo ematen ditugu erakusleetan. Hona: *Onec* ‘honek’ 4,3, *one*tan 1,1, *onen* 5,2, *oneec* ‘hauek’ 2,4, *oneetan* 3,1, *oneen* 5,2. *Ori* ‘hori’ 14,2, *orretatic*

13,3, *orren* 12,4, *orrei* ‘horiei’ 13,4. *Arec* ‘hark’ 8,3 –ik, 51 oharra–, *atara* 11,2, *atan* 2,2, “*artaraiño*” (sic -rt-) 14,2. Izenordain pertsonaletatik, hauek: *Ni* 2,4, *niri* 9,1, *nire* 3,1, *neu* 7,1, *neure* 2,4. *Gu* 2,4, *guri* 3,1, *gurezat* 3,1, *gure* 3,3, *gureure* 2,4. *Zu* 1,1, *zuri* 1,1, *zugandik* 2,4, *zure* 1,1, *zeu* 9,2, *zeuri* 1,1, *zeugana* 4,4, *zeure* 1,1. *Zubec* 10,1, *zubei* 14,2, *zubeen* 1,2, *zeubec* 11,1, *zeubei* 3,1, *zeubeen* 1,2.

3.2.3. *Sintaxia eta aditza*

Hasteko, ez dugu aipatu gabe utzi nahi behin aurkitu dugun *X-rekin Y=X eta Y* egitura: “Sartu ninzan Aita Eternuaren aurrian mundu galdubaren bitarteco, *Cerubagaz Luurraren* artian baquiac eguiteco” 4,3. Ez eta ere futurozko agintekaren adibide hau: “egon *zaitequez*” ‘egon zaitezte’ 7,4. Eta perpaus osagarrietan ageri den *-na* bakarra: “Ara Judegutarrac: Badaquizu, Pazcuaco demporaan costumbria daguana, preso bati libertadia emoteco” 11,1. Esan dezagun ere sarriago agertzen dela *ez* partikula aditz nagusiaren eta laguntzailearen artean –21 aldiz– laguntzailearen eta nagusiaren aurrean –10 aldiz– baino: “pensauco *ez eban*” 7,2, baino “*ez eusan emon*” 10,5.

Komunztadurari dagokionez eta bizkaieraren ohiturari jarraituz, *zu* eta *zube* adizki bera darabilte: *dozu* ‘duzu’ 4,3, eta *dozu* ‘duzue’ 1,2; *zenduban* ‘zenuen’ 2,4 eta *zenduban* ‘zenuten’ 4,2; etab.

3.3. Hitzak eta aditzak

Ohikotasuna adierazteko *ohi* bakarrik erabiltzen da, *joan* eta *eroan* ez dira erabiltzen horretarako. Ez dugu ikusi ez *ulertu* ez *laga*. *Gura izan* maizago ageri da –18 bat aldiz– *nahi izan* –15 aldiz– baino: “descargau *gura dabenian*” 2,1, “zuri jarraitu *guraco deusunic*” 2,1, baina “topau *nai izaten dozu*” 6,2. Gainera, *nahi izan* gune jakin batean –11,1 eta 11,3 orrialde eta paragrafoetan– ugari ageri da, *gura izan* banatuago dagoela testuan barrena.

4. GURE LANA

Funtsean eta oinarritzat lehen idazketa hartu dugu. Esku berak egindako erantsiak ere zalantzarik gabe sartu ditugu, baina kontuzago ibili gara beste eskuren baten lanaren aurrean ote gauden pentsatu izan dugunean. Hau gertatzen denean, batez ere hizkuntza gertakariaren batek gure kezka sortzen duenean, orrialde peko oharretan horren berri ematen dugu. Adibidetzat eman dezagun *ze* partikula “*eze*” eginik aurkitu dugunean behin baino gehiagotan, guk *ze* gordetzen dugula testuan eta aldaketaren berri ematen dugula oharretan. Sinestaturik gaude aurkezten dugun testua lehen idazketa egin duenarena dela, oharretan ematen ditugun aldaera eta eraskinak barne, garrantzi gabeko zertxoren bat izan ezik.

Laburturik dauden hitzak osorik ematen ditugu eta ez dugu egindakoa jakinarazten. Oso gutxi dira *–Jangoicua, Jesuchristo, christinauba(c), neure, Santisima–* eta osorik ageri direnean, beti berdin aldaerarik gabe azaltzen dira. Hitzen bat, hitz zati, idazkera markaren bat falta denean *–azkeneko hau erantsia izan den zeren batengatik sortua batez ere–* kortexete barruan osatzen ditugu.

Hitza hizki larri edo xehez hasten den erabakitzea ez da beti erraza. *Jangoico Semea, Jangoicuaren Semea* eta horrelakoetan, hots, Jangoikoaz ari denean, “Seme” idazten dugu. Testuaren kontra, “Christo” jartzen dugu. Latinezko okerrak zuzendu eta orrialde peko 1. oharrean denak batean ematen ditugu. Azentu markaren aurrean gauden edo ez, ez da beti seguru.

Hiztegitxo bat erasten dugu eta bertan, besteak beste, dagokion aditzaren adizkiak ipintzen ditugu, euskara estandarreko esanahikidea paratzen dugula ondoan, hala nola *zaitenez* ‘zaitezte’, eta noizean behin ordena alfabetikoa ez dugula estu-estu gordetzen. Hiztegia moldatzean, fonetika eta morfologia ukitzen dituzten gertakariak ditugu kontuan bereziki, erabakigarri izan dela ere OEH-ko adibide kopurua gehitu ahal izatea. Bukatzeko, *Adizkitegian* ordena alfabetiko estu-estuan ezartzen dugu dena. Euskal ahoskera eta grafiaren arabera antolatutako dugu alfabetoa.

Laburdurak: ad. aditza, adb. adberbioa, adj. adjetiboa, ik. ikus, interj, interjekzioa, io. izenordaina, iz. izena, pos. posposizioa.

TESTUA

+

[1] **Passio¹ D[omi]Ji n[ost]ri Jesuchristi secundum quattuor Evangelia.**

¿Nun zara nun zara o pecatu madaricatuba? Nun zara o pecatu illzaillia? Nun zagoz, zugandic gustijoc igas egin daigun? ¿Noraiño eldutecua ete da zure crueldadia? Zuc eguin zenduban Infernu izugarri bat, *zueure* (sic) adisquide gustijac an beti, erre abrasau² eta quisquilduten euquiteco; Zuc aimbeste milla Aingueru erasi zenduzan Cerutic, da ipini zenduzan betico abrasetan Infernuco calabozo icagarri areetan: Zuc *Dilubioco* (sic) ujaleen artian ondatu zenduzan zeure lagun zan mundu guztija³: Zuc erre eta abrasau zenduzan su garreen artian, zeuri jarrai-

¹ E (eskuizkribuan.) “Pasio”. Latinezko beste okerrok ikusi eta zuzendu ditugu: “quatuor” 1, tituluaren eta 3, tituluaren; “Justidae” 1,2,16; “Pasio” 3, tituluaren; “secundum” 3, tituluaren; “queritis” 7,1,3, eta 12; *Exorrescat* 8,3,11; “Cedum” 8,3,11; “zadis” 9,1,7; ~ “cadis” 9,1,12 eta 23; “Blasfemavit” 9,2,3; “Judæorum” 12,1,24 (fine); “Justidae” 15,3,19.

² L (ierro artean) erantsia.

³ L *galduba* erantsia, *guztijo*-ren parean.

tu eusubeen Gomorra, eta Sodomaco Ciudade andijac ingurubetan citubeen erri guztiequin batera. ¿Baiña onetan gueratuco ete da zure gogortasuna? ¿Oraindiño bere goragora elduco ete da zure crueldadia?⁴ Vel Goragora bere igongo ete dau zure crueldadiac? Baita ascosas altubagora, Jangoico poderoso baten Semia ipini dozu zuc tormenturic icaragarrijenac padeciuten, da ez zara gueratu berari bicija quendu artian. O pecatuba, pecatuba! ¿Eta, izango ete dozu oraindiño bere adisquideric? ¿Izango ete da oraindiño bere zuri jarraitu guraco deusunic? Bai zori gaistuan bai: Bai, zu mundutarrac ezagututen ez zaitubeelaco: Bai, zuc dacarsuzan caltiac ezagututen ez ditubeelaco.

Baldin bada neure christinaubac: baldin ezpadaquizu zelacua⁵ dan pecatubaren anditasuna, gaur enzungo dozu, zein satisfacinoe andija artuten daben Aita Eternuac iñoren pecatubac gaitic; da au bere Seme maite baten buruban. ¿Eta baldin ezpadaquizu zelan ipinten dozun zeubeen arima ederra, araco ain bildur bagaric pecatu mortal bat eguiten dozun trance icaragarrizcuan, icusi eguizu gaur zelan ipini eban Jangoicuaren Seme amoroso bat, pecatubaren satisfacinoia iñor gaitic emon biarrac. Beguiratu eguijozu gaur zeubeen consideracinoiagaz Jesus zeubeen fijadore sartu zan guizonic ederrenari: Erreparau eguijozu ondo, eta icusico dozu, eztaucala⁶ ya guizonaren ichuratic bere. Barriz badago zubeen (sic) artian, bere pecatubac gaitic Jangoico aserre baten bildur guichigaz daguan atrebiduric, guc beguira tuteco gaur ipinten jacun⁷ ispillu lastimoso onetan icusico dau, zelan castiguetañ dituban Jangoicuac iñoren pecatubac, bere Seme laztan, eta erru bagaco baten buruban. Quem proposuit ad ostensionem Justitiae suae. Eta bada neure christinaubac⁸: Jangoico zucen batec, iñoren pecatubac onan castiguetañ badituz; Au eguiten badau, maite maite daben bere Seme bategaz, eta au iñoren pecatubac gaitic, atera eguizu contuba ondo, [2] cer eguingo ez ete daben Jangoico onec, pecatarijaren gaiñera bere coleria descargau gura dabenian!!!. Icaratu zaitetz bildurrez christinaubac, pecatu mortal bat eguiten dozunian. Irazarri zaites arren irazarri nos edo nos, eta pensau eguizu astiro, egur ecian ain su andijac artuten badau, cer eguingo ez ete daben egur igarrian.

Betor ona araco Juicioco egun icaragarriescuaren gomuta bagaric bici dan pecatari ardura bagacua, pensau al daijan, zein cargu icaragarrijac eguingo deusazan Jangoico aserre batec bere coleraco egun atan, bere Magestade andijari eguin deusazan burla, desprecijo, eta agrabijo andijeen gainian. Baita betor ona, araco munduban daucazan trabaju, eta estutasun batzuc iraun ecin dituban christinauba bere: Emen icasico dau Jesuchristo bere Maisubaren escolaan, zelan,

⁴ Esaldi hau baztertu-kendurik dagoela esango genuke.

⁵ L *zetaraiñocua*, *zelacua*-ren parean.

⁶ E "eztaula".

⁷ L *dan*, *jacun*-en parean.

⁸ L O *pecatari tristia* dago, *neure christinaubac*-en parean.

sufrimentubagaz irago biar dituban, Jangoicuac bere oneraco eta bere pecatubeen satisfacinoeraco bialduten deusazan trabajubac, datorzan lecutic datorzala, eta edozein modutacuac izan ditezala⁹. Emen icasico dau Jesus bere Maisubaren exemplubagaz bere estutasunac, eta trabajubac Jangoicuari ofreciuten; bere naibaga guztietan Jangoicuaren disposicinoe altubac adoretan, eta bere trabaju guztietan Jangoicuaren borondate santubagaz bere borondatia bat eguinic euquiten: Emen icasico dau dongaro eguiten deusanari ondo eguiten deusanari ondo eguiten, eta agrabijuari amodijuagaz eranzuten: Emen icasico dau azquenic, beste gauza ascoren artian, proximuaren desgracijetan erruquitasuna artuten, eta arerijoric andijenac badira bere, areen desgracijaac erremedijetia-arren al-eguin guztia eguiten.

=Propuesta=

Guazan bada icustera, iños munduban jazo dan gauzaric erruquitsubena, amorubeena, eta lastimosuena, zein dan Jesuchristo gueure Jaunaren Pasinoe dolorosua eta eriozaric crueleena, mundutaar tristiciac pecatuco eriozatic, eta Eternidadeco su garretatic libretia gaitic.

Baiña ¿cer nas ni ain gauza andijac aituten emoteco? Betoz ona Ceruco Ainguerubac eta eztira asco izango. Betoz, araco Jangoicuaren amodijo santuban abraasetan dagozan Serafinac; baiña oneec bere ecin adierazoco dabe ain Misterijo altuba. Jesus! gure erruquijaren erruquiz aimbeste padecidu zenduban Jangoico ona! Zugana biurtuten gara gu argui eguiazcuaren billa: Eta zure caridadez beterico obra andi au ezagutu ecin badogu bere, arren emon iguzu pecatubaren gorrotua, eta zeuganaco amodijua, nic neure enzula onei esaten deusedan bitartian, cembat zuri costa jatzun gu ceruraco bidian ipintia. Au zugandic, gueure erremedijoco egun onetan, alcancetaco, emen jarten gara gustijoc belau-nico zeure aurrian; eta zeure Ama penazcuaren negar zizpurubequin gueure penia nastetan¹⁰ dogula, esango dogu esperanza andi bategaz Aingueru San Gabriele ecarri eban¹¹ albiste pozgarrija Ave Marija vel esango dogu devocinoe andi bategaz gueure esperanzaco pozgarrija=Ave Maria.

+

[3]

**Passio D[omi]ni n[ost]ri Jesuchristi
secundum quattuor Evangelia.**

Jesuchristoren Pasinoeco tormentubeen consideracinoiac emon biar deusa christinaubari pecatubaren damuba, eta bere bicicia obatuteco gogua. Esan gura

⁹ L. *dirian moducuac diriala dago, edozein... ditezela*-ren gainean edo parean.

¹⁰ L. *bat eguiten dio, nastetan-en* parean.

¹¹ L. *euscun, eban-en* parean.

deusud¹² neure christinaubac¹³, eztala asco christinau batenzat¹⁴, egun oneetan Jesuchristoren Pasinoeco tormentubac enzunagaz admiracinoe andi baten egotia; Eztala asco, egun oneetan Eleixaric Eleixa, eta sermoeric sermoera ibilltia; Eztala asco, egun oneetan Jesuchristoren tormentu icaragarrijac enzunagaz negar zizpuru batzuc eguitia bere: Oneec gustijoc dira gauza onac; baiña ez biar dirian bestecuac, baldin artuten ezpadogu gueure pecatubeen damuba, eta gueure bici moduba oba-
tuteco gogua. Asco ibillico ciran Jerusalengo caletan, da Calbarijoco mendijan¹⁵ negarrez Jesuchristoren ondoric; baiña ez zan izango eureen pecatubeen dolorez; ezpada bacarric izango zan Jesuchristoren erruquiz; eta au gaitic izango zan, Jesuchristo gure Jaunac orduban emon eban quejia; eta gaur ascori emon leiQUIJUENA. Bai christinau devotuac; Negar eguiten ebeen emacume batzuc Jesuchristo gure Jauna aimbeste padeciuten icusten ebeenian; Baiña ¿cer dirause emacume arei Jesuchristo, arei, eta guri eracustera etorri zanc? eta padeciuten eguanac? Jerusalengo alabaac; esaten deusé: Ez eguizu negarric eguin nigan, da nire tormentubeen gainian, ezpada zeu-
been burubeen, eta zeubeen seme alabeen gainian. Esaten baleusé leguez: Negar eguizu bai ordu onian; baiña negar eguizu zeubeen Nacinoiari datorcazan gorpuce-
co eta arimaco gah¹⁶ andijeen gainian: Eta gah andi oneec zeubei eldu ez daquizu-
zan, eguizu negar zeubeen dongaro eguineen gainian: Eguizu negar zeuben seme alabeen, da zeubeen Nacinoeco gentiaren pecatubeen gainian.

Ara emen christinau devotuac; eta ara emen christinau peccarijac. Ara emen Jesuchristori devocinoez bere Pasinoe dolorosuan jarraituteco moduba; Gueure pecatubeen gainian negar eguitia; gueure pecatubequin Jangoicuaren Magestade andija agrabijau dogulaco penia, eta sentimentuba artutia: Pena, eta sentimentu onegaz ya gueijago peccaturic ez eguiteco determinacinoe firme bat artutia.

Icusi daigun bada, cerzuc irago¹⁷ cituban Jesuchristo Jangoicuaren Semiac gure pecatubac gaitic, eta gure erremedijua gaitic, artu al deijogun guc peccatubari gorrotua eta Jangoico gueure ondo eguilliari amodijua.

Bai christinau devotuac: Beti izanda Munduba esquer cháárrecua eta Jesuchristoren azqueneengo egunetan icusi zan Jesuchristogaz esquer gaistotasunic andijena mesediac beragandic errecibiuten egozaneen artian.

[4] Illac biztuten cituban Jesuchristo gure Jaunac; guisuac¹⁸ osatuten cituban; ichubai emoten euseen bista, gorrai emoten euseen enzutia, eta mutubai berbia. Errenac, baldaubac eta perlexijaan egozanac sendatuten cituban; eguiten cituban

¹² Horrela: "deusud" 'dizuet'. Ik. 70. oharra.

¹³ L *enzula onac, christinaubac*-en parean.

¹⁴ L *gurezat, christinau batenzat*-en parean.

¹⁵ L *mendirá bidian, mendijan*-en parean.

¹⁶ Horrela: "gah" 'gatx, gaitz'.

¹⁷ L *padecidu, irago*-ren parean.

¹⁸ Horrela: "guisuac" 'gaixoak'. Aurrerago "Guixuac" ageri da: 4,4; 9,2.

milagro andijac, erremedijetan cituban aguertuten cirian necesidadiac, eta eracusten eban Ceruraco bidia.

Baiña ¿Noc¹⁹ esango eban? Mesede ain andi oneec eguinac eracarri eusan Jesuchristori ascoren gorrotua. Bai christinaubac; Judegutarren Aguintarijac, Sacerdotiac, eta Jaquitunac ecin begui onequin icusi citubeen Jesuchristo gure Jaunac eguiten cituban gauza andijac: Ecin sufridu ebeen Jesuchristo gure Jaunari mundu gustijac jarraitutia: Sartu ciran Jesuchristoren gorroto mortal baten, eta determinau ebeen aren Divina Magestadiari bicija quendutia. Ondo equijazan Jesuchristoc bere arerijueen pensamentu galdubac: ipini cituban gauza guztijac estadu onian atzo arrasaldian enzun zenduban leguez eta demporia eldu zanian da ez leenágo sartu zan bere Pasinoe dolorosuan, bere bicijaren costuban gure errescata eguiteco²⁰; Baiña leenago despeduco zan bere [Ama] santisimiagandic Jaquitunac esaten deuscubenez.

Elduco zan bada bere Ama maitiagana, eta consideraunic, andra inocente onec egun areetan artu biar cituban nai-bagatasun, estutasun eta atsacaba andijac, esango eusan penaz beteric modu onetara. O! neure Ama maitia! Animau zaitez, ordu onetan barri ondo tristiciac enzuteco: Zure humildadiac ecarri ninduban ni zeure errai garbijetara, eta zuri ondo eguin najjac obliguetan nau²¹ orain, neure bijoceco secretoric ezcutubeena zuri aguertutera: Jaquin biar dozu bada neure Ama maitia, eldu dala ni neure Pasinoe dolorosuan sartuteco determinaunic eguan demporia: Sartu ninzan Aita Eternuaren aurrian mundu gáldubaren bitarteco, Cerubagaz luurraren artian baquiac eguiteco, pecatubari etorcon zorra neure gaiñera artuten nebala: Orregaitic sacrificijuan emon biar dot neure bicija, neure bicijaren²² costuban munducueen arima tristiciac erosteco: Onetaraco sartuten nas Pasinoeric gogorrenian, iragoteco tormenturic icaragarrijenac: gaur gabian artuco nabe preso neure Ama maitia, eta icusico nozu gaur gabian da bijar, munduco burlagarrija eguinic, tormenturic andijenac padeciuten eta azquenic icusico nozu zeure semia, curuce baten josiric²³ afrentaric andijenian illten. Bai=Neure Ama maitia; Au gustijau eta gueijago padecidu biar dot, neure criatureren zorrac paguetaco; baiña, zuc artu biar dozun peniac erdibitu biar deust neure bijoza: Orregaitiño bere, eztago erremedijoric, eta alan agur neure Ama maitia.

¿Noc ondo ponderau lei christinaubac zetaraíñocua izan zan Virginia Santisimaren penia Jesus bere semiaren despedida triste onetan?²⁴ Orregaitiño

¹⁹ E "non".

²⁰ L. *gu tristicio erremedijetaco, gure errescata eguiteco*-ren parean.

²¹ E "nau".

²² L. *ericiaren, bicijaren* parean.

²³ L. *eseguiric, josiric*-en parean.

²⁴ Bazterren goitik behera dagoen lerro batean aldaera hau dago: "¿Noc ondo ponderau christinaubac ceteraíñocua izan zan Vir[gi]na S[antisimare]n penia bero seme maiti[ar]en despedida onetan?"

bere Señora prudente onec considerauc Aita Eternuaren borondatia, eta munduco erremedijuaren conbeniencijs, esango eusan (penas bazan bere) conformidade andi bategaz bere semiari, O! neure begujetaco argui ederra! ¿Zelan izan leiteque, orain ni zugandic apartauric bici izatia? Guixuac eta afligidu tristiciac zeugana etorten jazuzan eureen erremedijuaren billa, eta zuc zeure Ceruco poderiagaz guztijac osatu eta alibijetan zenduzan; Baiña orain ni neure semiari bagaric gueratuten banas ¿nun topauco [dot] alibijua? ¿Nun consuelua? O! neure bijoceco seme lastana! eta cer ezpata cruelac iragoten daben trance onetan nire bijoza zure despedida triste onegaz!²⁵

[5] Orregaitiño bere, Aita Eternuaren borondatia dan ezquero; zuaz neure seme maitia; zuaz munduba erremedijetara.

Consideraizu²⁶ ondo neure christinauba zein lastimosua, eta zein dolorosua izango zan Ama Seme laztan oneen despedida triste au, eta pensau²⁷ eguizu oraindiño bere lastimosuagua, eta dolorosuagua izaten dala araco Jangoicuac gugandic eguiten daben despedida tristia, gu pecatu mortal baten sartuten garian trance zori gaistocuan. Orduban: bai pecatari burubagacuac: Orduban apartetan da gugandic Aita Eternua: Orduban apartetan da gure arimatic Jesuchristo gueure erremedijua; Orduban apartetan da gugandic Espiritu santu amodijozcua: Orduban igas eguiten dabé gure arima tristetic Jangoicozco iru personac; diñuela: Migremuz hinc, guazan emetic; vrten daigun madaricatu onen arimatic; bada eztago emen gurezat lecuric. O despedida tristia! O despedidaric negargarrijéna! zein etan gueratcen dan arima tristia Jangoicuaren gorrotuan, eta Demoninuaren²⁸ escubetan. Beguiratu eguijozu o pecatarija: Beguiratu eguijozu zeure arimia (sic) tristiciari, zelan dauan negarrez.

Ida al Huerto de Jetsemani

Despedidu zan bada Jesus amorosua; apartau zan bere Ama Santisimia-gandic; eta San Pedro, San Juan Evangelistia, eta Santiago bere lagun citubala, juan zan Jetsemanico Hortu santura Aita Eternuari oracinoe eguinaz, bera preso artutera, gau atan etorrico cirian arerijo cruelai ichaatera. An auspaz etzunic oracinoe eguiten eguala, asico zan bere Aita Eternuari esaten: O! neure Aita maitia! Eldu da, eldu ya ni neure Pasinoe dolorosuan sartuteco eguna; Eldu da nic munduba gaitic neure bicija emoteco demporia. Zuc ipini zenduban carga astun au nire sorbalde-

²⁵ Orrialdearen azken lerroan hau dugu: "Orregaitino (sic) & &", eta hurrengo orrialdearen lehen lerroan beste hau: "[one]tan nire bioza zure despedida triste onegaz", aurreko orrialdeko hondar lerroa errepikatzen dela eta, han ez bezala, hor "bioza" idazten dela.

²⁶ "Considerau eguizu" egin du esku berak.

²⁷ L *simistu*, *pensau*-ren parean.

²⁸ L "Demoninu~~een~~", "Demoninu~~aren~~"-en parean.

en gainian, eta neuc neure borondate oso osuagaz artuneban neure gaiñera pecatubaren zorrari satisfacinoe emoteco obligacinoia: Emen nago bada prest pecatubaren zorra munducuac gaitic paguetaco: Emen nago neure Aita maitia; Emen nago mundubaren erremedijuagaitic neure bicija emoteco: Emen nago prest, eta barricen barri artuten dot neure gaiñera, zuc Ceruban emon zenduban sententija astuna: Asi zaitetz bada neure Aita maitia; asi zaitetz sacrificijo oni su emoten; descargau eguizu nire gaiñera, munduco pecatubari datorcon colpe cruela. Ezaitz²⁹ atzeratu neure aita maitia, bada eldu da aimbeste deseauric neucan eguna.

Onan eguan Jesus amorosua bere Aita Eternuari erregu eguiten bere arerijuac bere billa vrrian cituban dempora atan bertan. Emetic ezagutuco dozu christinaubac zein borondate andijagaz sartuten zan Jesus amorosua bere Pasinoe dolorosuan gu tristioe erremedijetiagaitic: Orregaitiño bere trance onetan irago cituban Jesus amorosuac agonijaric larrijeen bateco estutasunac; bada alde batetic consideretan citubala, gau atan bertan, eta bijaramon egunian iragoco cituban tormentu icaragarrijac; consideretan ebanian bere personiari eguingo euseezan agrabijo, injurija, eta desprecijo andijac; icusten ebanian Aita Eternuaren, da Espiritu santubaren contra gau atan, da bijaramonñan eguingo cirian pecatu icaragarrijac: Au guztijau alde batetic bere goguan erabillala, eta bestetic³⁰ consideretan ebanian zelan pecatari asco³¹, asco, eta asco balijauco ez cirian bere trabaju andi areequin, ain modutan larritu eta estutu zan ce (izardi oz bat leguez) larrijaren larriz, asi zan bere gorpuz guztitic odola emoten, odola lurreraiño elduten zala, eta bere soñeco erropac bere odolac iragoten cituban moduraiño. Alan, estutasun onetan, tristura andi [6] batec artuta eguala, esaten deusa bere Aita Eternuari. O! neure Aita maitia! albalizate irago bedi nigandic Pasinoe doloroso au: Baiña ezpeite eguin nire borondatia, ezpada zeuria³².

Au da neure christinaubac Jaquitunac esaten dabeen leguez, guizatasunac penia eta sentimentuba artutia, borondatia Jangoicuaren borondatiagaz conforme daguala: Erreparau eguijozu bai ondo Jesuchristo gueure Maisu oni, cer eguiten daben, bere buruba ain estutasun andijan dacusanian³³: Zube³⁴ Zubeen estutasunetan, munduco gauecetan topau nai izaten dozu alibijua; baiña Jesuchristoc eracusi gura deuscu eguite modu onegaz guri, oracinoian, da Jangoicuagan, bacarric arqituco dogula guere estutasunetaco alibijo eguijazcua: Ez murmaracinoian, ez gueure coleria proximuaren contra descarguetian³⁵.

²⁹ Horrela: "Ezaitz", esaldi hau toki estuan crantsia. Horregatik ere noski "aita", a xehea erabiliz.

³⁰ L. eta bestetic, lehenbizi "consideretan ebanian bestetic" zioela.

³¹ L. erantsia, horrela hiru asco daudela.

³² E "zeuria".

³³ L. icusten dabenian, dacusanian-en parean.

³⁴ Gero erantsia Zube, eta horregatik "Zubeen" letra larriz hasten.

³⁵ L. "Aqui como bino (sic) un Angel= confortans eum", Lukas 22,43.

Traicion de Judas

Jesuchristo gure Jauna onan bere Aita Eternuari oracinoe eguiten eguala, eldu zan Judas traidoria, gente armaubagaz Jesuchristo gure Jaunaren billa: Baiña ¿cetaraco vste dozu? Aih christinaubac! Jesuchristo gure Jauna preso artuteco eta bere arerijo cruelai entreguetaco: bada salduta dauca bere arerijo cruelai ogueta amar dirutan³⁶.

O! atrebimenturic andijena. Jangoico poderoso bat preso artu? Jangoico poderosuaren Seme Jangoico bat saldu? saldu, eta ogueta amar diruban! O! cer precijo bajuba au, ain Jaun andijarenzat! Carubago ascotan ganau bat saldu oi da Erijaan (sic); diño Jaquitun batec. Baiña ¿nor da Jesus Jangoicuaren Seme au saldu, preso artu, eta bere arerijo crueleen escubetan ipinten dabena? O! cer pena andija Jesus amorosuarenzat! Errazoiagaz eguan ain tristura andijan trance onen aurrian, Jetsemanico Hortu santuban. ¿Zein da, Jesus amorosua saldu, preso artu, eta bere arerijueen escubetan ipinten dabena? Judas, Jesusen beraren³⁷ amavi discipulubetatic bat: Judas, gau aren arrasaldian bertan Jesusec bere maijan conbidau euqui eban Discipulu bat: Judas Jesusen adisquide, eta bere lagun eguiten zana: Judas discipulu falso onec, adisquidetasunezco senaillagaz Jesuchristori mosu eguiten deusala, emoten deusé, gaubaren illuntasunian seña^{allia} (sic), armauric etorzan gentiari, zein zan, eurac preso artuco ebeena³⁸. Ara; esaten deusé Judasec, an etorren gente armaubari; Neuc mosu eguingo deusadana; bera da: Oratu eguijozu, eta eusi eguijozu ondo, igas eguin ezteiquezun.

Ara emen christinaubac, noraiño eldu leitian Jangoicuaren escubetatic ichita³⁹ dagan baten atrebimentuba, traicinoia, eta falsaquerija. Baiña ah! christinaubac!⁴⁰ ¿Judas bacarric ete da Jangoicuaren Seme au salduten dabena? ¿Judas bacarric ete da Jangoicuaren Seme oni falsaquerija, eta traicinoe eguiten deusana? ¿Cembat bider emen gagozanetatic ascoc saldu ez ete dogu Jangoicuaren Seme au berau? ¿Cer dala vste [dozu] pecatu mortal bat eguitia? Da bada gueure Jangoicua saldutia: da pecatuzco gauza bat gaitic gure Jangoicua truquetia; da pecatuzco gauza bat Jangoicua baiño gueijaguan estimetia; eta precijuari beguiratuco baguensquijo icusico guenduque, ascotan salduten dogula gueure Jangoicua Judasec baiño ascozaz merquiago eta ascozaz precijo billau eta bajubaguan. Barriz tra[i]cinoiari beguiratuten badeusagu cembat christinau etorten &

³⁶ L "segun he oido en pulpitos los treinta dineros en los [que] fue bendido (sic) Christo equibalian (sic) a unos dos cientos o no se si mas r[eale]s".

³⁷ L erantsia beraren.

³⁸ L artu biarco ebeena, artuco ebeena-ren parean.

³⁹ L desamparanta, ichita-ren parean.

⁴⁰ L enzuten zagozan, enzuten zagozan christinaubac.

[7]

Prision

Eldu zanian⁴¹ Judas traistoria gente armaubagaz Jesuchristo oracinoian eguan lecura, itanduten deuse Jesusec an etorren gentiari ya noren billa ebilzan. *Quem quaeritis?* esaten deuse Jesuchristoc: ¿Noren billa zabilz? Jesus Nazarenuaren billa eranzuten deusé eurac. Neu nas Jesus Nazarenu esaten deusé Jesuchristoc. Ego sum, O Berba icaragarrizcua! Jesuchristoren aotic berba oneec vrten ebéneco, bertatic guizon areec bertan beera jausi *ciran* (sic), *ezpaldaz* (sic) atcera vel⁴² buruz atcera, cer iragoten jacueen ez equijeela. Baiña O! Jesus amorosuac guganaco eucan erruquitasuna! Padedidu gura eban, eta gure erruquijagaitic padeciuten eban: Alan emon euseen guizon arei lurretic jaguiteco licencijsa, eta jagui cirianian itanduten deuséé ostera bere Jesuchristoc, ya noren billa ebillzan. *Quom quaeritis* dirause Jesus mansuac. ¿Noren billa zabilz? Eranzuten dabe ostera bere Jesus Nazarenuaren billa ebillzala. Orduban esaten deuse Jesuchristoc; Esan deusut leenágo bere, neu nasala Jesus Nazarenu. Ego sum.

¿Noc sinistuco eban christinaubac, guizon areec oraindiño bere azartuco ciriala Jesuchristori icuturic eguiten?⁴³ batez bere, icusi ezquero bere berba batec luurrera ezarri (sic) citubala, eta bere licencijsa bagaric ecin luurretic jagui ciriala? ¿Noc pensauco⁴⁴ ez eban guizon areec Jesuchristo gure Jaunari parcacinoia escatuta, bacocho eureen echeetara erretiraucoc ez ciriala? Baiña eztago erremedijoric: ichututa dagoz; gogortuta dagoz eureen bijozac, da eztira gueratuco eureen empeñu madaricatuba lograu artian.

Ara⁴⁵ emen neure enzula onac; Ara emen, zein andija dan ascotan pecatari baten ichutasuna, eta bere bioceco gogortasuna: Alperric (onan esan albalei) Alperric empeñauco da Jangoico amoroso bat ascotan, pecatari bati, daroiazan bide galdubac embaracetan, ezta gueratuco bere empeñu madaricatuba lograu artian: Bialduco deusaz Jangoicuac batzubetan castigubac, acordauco albaliz castigubagaz: Beste batzubetan eguingo deusaz mesediac, bere ontasuna icusijagaz biurtuco albaliz beraganuz; Icutuco deusa lancian bein Jangoicuac bere biocian, edo dala pensamentu santu bategaz; edo dala enzun daben sermoe bategaz; edo dala beste gauzaren bategaz; Baiña guztira guztira⁴⁶ ascotan gogortuco da pecatarijsa bere pausu galdubai ez istia gaitic: Zarratuco dituz bere arimaco beguijac Jangoicuaren castiguric eta mesederic ez icustia gaitic. Zarratuco dituz bere arimaco belarrijac Jangoicuaren dei amorosoric ez enzuteco; eta moduren baten

⁴¹ L "*vide sobre en lo anadido* (sic)".

⁴² Gero *edo* egina.

⁴³ L "*escubac ezartzea* (sic)?" *icuturic eguiten*-en parean, luma lodi tinta beltzez.

⁴⁴ L *esango*, *pensauco*-ren parean.

⁴⁵ L idatzirik letra zakarrez: *para que conste doi en Lequeitio*, kaligrafia egiten ari dela edo.

⁴⁶ L bigarren *guztira*.

atcera eraingo deuse Jangoicuaren inspiracinoe santubai; bere bijoz gogorra bigundu ezteijueen.

O! Zori gaistoco pecatari ichubac! O! Zori gaistoco pecatari bijoz gogorreacuac! ¿Eta zerc ete zaocaz estadu lastimoso onetan? ¿Vste al ete dozu Jangoico poderoso bat zeubeen escura ecartia? ¿Edo uste al ete dozu Jangoicuaren escubetatic igas eguitia? Baiña jaquinic egon zaitequez, vrrñera elduten dala Jangoicuaren Justicijaco zigorra, eta guichien vste dozun aldetic ascotan Jangoicoac castiguetan zaitubala: Barriz ah! neure christinauba! Jangoicuac munduban pecatari bati emon leiquijon castiguric andijeeen bat da, beragana biurtu eztedin bijoceco gogortasun onetan euquitia. Considerau eguizu bai pecatari bioz gogorrecau: Pensau eguizu ondo, Jesuchrist[8]toren berba batec, padecidu gura eban egunian, ain modutan icaratu eta luurreraiño guizon areec ezarri bacituban; pensau ondo dirausut, zer izango ete dan zugaz, esan deizunian coleraz beteric; Zuaz madaricatubori nire beguijeen bistatic; Zuaz Lucifer, da Demoninueen artera: Leenago bere eureen lagun izan zara munduban egon zarian demporaan; zuaz zuaz bada orain Infernuban euraquin seculaco tormentubac iragotera.

Jagui cirianian luurretic Jesuchristoren licencijagaz guizon areec, eta jaquin ebenian, bera zala Jesus Nazarenu, ichasi jacozan chacur amorrotu batzuc leguez; lotu eusezan atceruz soca bategaz bere escu sagradubac; ezarri euseen beste soca bat samara, eta eruan ebeen arrastaca, bulzaca eta tiraca, caleric cale, batac baiño bestiac colpe andijagua emoten euseela; batac baiño bestiac burla andijaguac⁴⁷ eguiten euseezala. ¿Noc esan lei an izango cirian algara, ijui eta diadarrac, Jesuchristo preso ecartia lograu zalaco? Emen dator; emen dator traidore au, esango ebeen, diadarrez; Emen dacargu gueure Erreiñuba alborotetan ebillan echizeru au: Jangoicozat saldu nai euscun bere buruba; baiña orain icusico dau zelán vrtengo deuseen bere embusterija gustijac. Onan eruan ebeen Jesuchristo gure Jauna Anas sacerdotiaren aurrera.

Tribunal de Anas

Anas sacerdotiaren aurrian cargu eguin jacon Jesuchristori bere doctrina edo eracusijaren gainian. Eranzun eban Jesus amorosuac, beti eracutsi ebala bere doctrinia aguirijan; bai Templuban, eta bai beste lecu ascotan; Alan, enzun ebeenac éurac⁴⁸ emongo ebeela errazoia bere eracutsijaren gainian. Anas Sacerdotiaren crijau batec errespuesta au enzun ebanian emon eusan Jesuchristori bofetada, edo belar ondoco⁴⁹ andi bat, esan eusala, ya alan eranzun biar eusan sacerdotiari?

⁴⁷ E "andijac".

⁴⁸ Izan dugu dudarik azentu marka -u- bokalaren gainean ipini behar ote genuen. Beraz, "eúrac".

⁴⁹ Bi zatitan partitirik idazten duela uste dugu. Paragrafo luze honetan hiru aldiz ageri da, eta bigarreanean izan dugu dudarik.

Christinaubac; cer esan neizu nic Anassen⁵⁰ crijau onec⁵¹ artu eban atrebimentu andijaren gainian? Exhorrescat Caelum: diadar eguiten dau San Juan *Crisostomoc* (sic) trance onetan: Espantuz bete bedi Ceruba, guizon triste batec Jangoicuaren Semiari escuba lancetan icusten dabenian; Contremiscat terra: Icara eguin *bei* (sic) luurrac, bere gainian daucan criatura triste batec ain atrebimentu andija andija⁵² artu dabenian. O! Aita Eterno Cerucua! ¿Zelan sufriuten dozu zeure Semiari eguin deuseen injurija andi au? Baiña ah! christinaubac! ¿Zelan Aita Eternuac sufriuco eztau bere Semiari emon deuseen bofetada, edo belar ondoco au, guizon arec ezpaequijan Jesuchristo Jangoicuaren Semia zanic? Obeto esan biar guenduque guc ¿zelan Aita Eternuac sufriuten ete dituban egunian egunian gugandic bere Seme onec errecibiuten dituban pecatuzco afrenta, eta bofetada andijac⁵³: [9] Zembat tratamentu donga eguiten ezteusaguz guc Jangoicuaren Seme oni gueure pecatubequin? Eta au, daquigula ciur, berau dala Jangoicuaren Semia eta Jangoicua bera? daquigula berau dala aimbeste mesede eguin deuscuzan, da eguiten deuscuzan Jangoicua? ¡Cer gueijago! daquigula, berau izango dogula gueure pecatubeen Juez icaragarri bat. Baiña enzun eguizu, cer esaten deusun Jangoicuaren Seme onec Anasen crijau aren personaan; ¿Cur me caedis? esaten deusa Jesuchristoc, belar ondocua emon eusan Anasen crijaubari. ¿Cer gaitic ni joten nozu? ¿baldin dongaro berba eguin badot, esan eguidazu zetan daguan dongaro esana; eta ondo berba eguin badot, cer gaitic joten nozu? Au berau (modureen baten) esaten deusa Jesuchristoc christinaubari araco pecatu eguiten dabenian, edo pecatuco bideetic apartau gura eztabenian[.] ¿Cur me caedis peccatori tristia? esaten deusa: Zetan ofendidu zaitudaz christinauba, zuc niri aimbeste tratamentu donga emoteco? ¿Zein dosu motibua, neure arerijo Demoninueen lagun eguinda nire contra armaac⁵⁴ artuteco? librau zendudazan, erremediojo bagaric jua biar zenduban Infernuco su-garretatic, neuc zeure ordez bicija emoten nebala: Atera zendudazan Demoninuaren aguin amorrotubeen artetic, bautismo santuco vragas zure arimia garbituten nebala: Eguin zendudazan neure Erreiñuco herederu, gracijazco janci ederra señaitezat emoten neusula: Baiña zuc, Evangelijoco seme galzailiac leguez, desprecijau zenduban nire Erreiñuraco derechua pecatuco simaur atsitubeen gustua gaitic: Oraindiño bere barriren⁵⁵ barri artu nai zaitudaz neure echera; Barrijen barri esquincen deusud neure Erreiñuraco derechua: ¿Cer gueijago eguin neizu? ¿Cur me caedis? ¿Cer gaitic bada oraindiño bere niri aimbeste tratamentu donga emoten deustazuz? Eztauca, eztauca peccarijac cer eranzun; bada oraindiño, cer eranzun guichiago

⁵⁰ Lerro bukaeran *Anas* eta hurrengo lerroaren hasieran *sen*.

⁵¹ L *arec*, *onec*-en parean.

⁵² E errepikaturik.

⁵³ Galdera marka ezabatu egin du hemen.

⁵⁴ E "armaar".

⁵⁵ L luma lodiago eta tinta beltzez erantsia "barriren" (sic), zazpi hitz beherago "Barrijen" ipini dela l. idazketan.

topauco dau, Jangoico⁵⁶ aserre batec Tribunalian gauza oneen, da beste ascoren cargubac eguingo deusazanian.

Tribunal de Caifas

Anasen aurretic eruan ebenen Jesu[s] amorosua Caifasen aurrera. Caifas falsuac, dolez (sic) beteric, esaten deusa Jesuchristo gure Jaunari modu onetan bere Ministrueen aurrian: Ara, Jangoicuaren icenian errequiriduten zaitudaz, eta esan eguizu eguija, ya zeu zarian Christo Jangoicuaren Semia? Tu dicis, eranzuten dau Jesuchristoc. Zeuc diñozu: Eta icusico dozu guizonaren Semia Jangoicuaren alde escumatatic datorrela, odeijeen gainian jarriric. Ez eban Caifas falsuac beste gauzaric gura, ezpada moduren bat, edo pretestoren bat topetia Jesuchristoren eriocia onzat emon eraiteco, eta au Jesuchristori erasuagaz vste izan eban Caifasec, topau ebala biar eban guztija: Ala Caifas falsuac, Jesuchristoc au esanagaz Jangoicuaren contra berba [eguin] baleu leguez, eta Jesucristoc Jangoicuaren contra berba eguin ebalaco berac pena andibat artuten [baleu] leguez, vrratuten dituz escubaquin soñeco erropaac sentimentubaren demostracinoez, diñuala: Blasphemavit, Jangoicuaren contra berba eguin dau: Ill bedi: Crucificau bedi: ¿Cer testigu gueijago biar dogu? bada beronec acusau dau bere buruba? ¿Cer derichazu zubei? esaten deuse Caifasec bere Ministruai: ¿Cer derichazu zubei? Eriocia mereciu dau: eranzuten dabée Caifasen Ministruac Reus est mortis. Baiña ¿nor da eriocia⁵⁷ mereciú⁵⁸ dabena? Jesus Jangoicuaren Semia? Baiña ¿cerzuc dira Jesus Jangoicuaren Seme onec daucazan delitubac, eriocia mereciuteco?⁵⁹ Illac biztuten ditubala? Guixuac osatuten ditubala? Mesede andijac lecu guztietan eguiten ditubala? Ceruraco bidiaç eracusi ditubala? ¿Oneec ete dira, Jesus amorosuac⁶⁰ eriocia mereciu dabela esateco motibuac? ¿Baiña noc diño Jesus Jangoicuaren Seme onec merecidu dabela erijocia? Caifasec esan dau, ill bedi: Crucificau bedi: Eta ari eder eguitia gaitic, bere Ministruac bere esan dabée, eriocia mereciu dabela vel aren Ministruac bere onzat emon dabéc⁶¹ (sic).

Baiña ezta Caifas bacarric Jesus Jangoicuaren Semia gaitic, ill bedi, Crucificau bedi, esaten dabena: Eztira Caifasen Ministruac gaurco egunian pensamentu au onzat emoten dabeenac, Pecatarijac pecatarijac diñue oraindiño bere eureen peca[10]tubequin Jangoicuaren Seme augaitic: Ill bedi, eta quendu daigun gueure beguijeen bistatic, gure bidiaç zaintu eztaizan eta gueure libertadian ibilli gai-

⁵⁶ E "Jangoico *co*".

⁵⁷ E errepikaturik *eriocia*.

⁵⁸ Azentu marka ipini dugu, baina beharbada ez zuen sermoilariak hori adierazi nahi, 13 hitz lehenago marka gabe dago, eta hori bera gertatzen da paragrafoan beherago hiru aldiz.

⁵⁹ L *mereciu dabela esateco, mereciuteco*-ren parean.

⁶⁰ L *inocentiac, amorosuac*-en parean.

⁶¹ Lehenbizi "dabé", gero *-e* erantsiz, 10 hitz lehenago "dabée" dugu.

tian. Baiña alperric zabilz pecatari tristiciac; bada zubeen nai ta nai ezcian zaintuco dituz Jangoicuaren Seme onec zubeen bide galduac, eta zube amorrotuten zaria-la botaco zaituz Infernuco su garretara, baldin bioz guztitic beragana biurtuten ezpazara.

Emen asi ciran Jesus amorosuaren contra, batzuc vcabildac emoten; beste batzuc osticadac emoten, batzuc bere⁶² arpegui ederrera chistu gorruac botaten, eta nai ebanac nai ebana Jesus amorosuari eguiten, Emen estaldu euseezan Jangoicuaren Semiari bere beguijac, eta bere arpegui ederrian joten ebeela, bur-laz esaten euséén; Igarri eguijozu nos noc joten zaituban. Onan Demoninuaren Ministro areec irago ebeen gaba Jesuchristo gure Jaunari barre ta burla eguitia eta Jesuchristo maltratetia, eureen loguria quenduteco, dibersinoe garrizat artuten ebeela. Irago zan bada gau triste au, penaz bazan bere, eta bijaramon goxian eruan ebeen Jesus inocentia Pilatos Juezaren aurrera.

Pillatosen tribunalian eguin eusezan Jesuchristori acusacinoe andijac bere arerijuac eta ezarri gura euseezan falso testimonijo andijac, baiña ez egosan testigubac conforme: Alan Pillatos Juesac laster ezagutu eban, errazoe bagaric ecarri ebééla bere aurrera Jesuchristo gure Jauna: Baita pensau bere eguin eban Pilatosec, gorrotoz, embidijaz, edo gaisqui eguin naiz, escatcen ebeela Jesuchristoren erijocia; Orregaitic eguin cituban Pilatosec al eguinic asco⁶³ Jesuchristo gure Jauna (edola bere) eriozatic libretaco edo⁶⁴ beinic bein, berac erijozaco sentencijaric ez emoteco; edo⁶⁵ Jesuchristoren contra eriozaco sentenci-ja ez emoteco [;] Eta areetaric bat izan zan Herodes Erreguiagana bialdutia. Bai christinaubac jaquin ebanian Pilato[s] Juezac Jesuchristo zala Galileatarra &⁶⁶.

Asco alegrau zan Herodes Erreguia Jesus preso miragarri⁶⁷ au bere Tribunalera bialdutiagaz, bada eucan enzute andi bat Jesusen Milagro andijeen gainian, da vste eban Herodes Erreguiac, ce Jesus fama andico onec eguingo ebala milagro andireen bat, bere aurrera acusauta ecarreenian: Baiña ah! christinaubac! Jangoicuac berac daqui, nos ondo dan, eta nos ondo ez datorren, milagruac eguitia. Alan Jesuchristo gure Jaunac, ez bacarric ez eban eguin milagroric Herodes Erreguiaren aurrian, ezta ez eban berba bat bere eranzun, berari eguin euseezan itaune guztietara⁶⁸: Orregaitic Herodes Erreguiac, eta bere Ministruc euqui ebeen zoroizat Jesuchristo gure Jauna: Alan zorua baliz leguez, janci euseen

⁶² E *beste*.

⁶³ L *gauzaric asco, al eguinic asco-ren* parean.

⁶⁴ L *edo beinic bein... ez emoteco*.

⁶⁵ Ezkerreko bazterrean *edo Jesuchristoren... ez emoteco*.

⁶⁶ L *Vide esto en las adiciones, dio*.

⁶⁷ L *fama andico, miragarri-ren* parean.

⁶⁸ L *cargu andijetara, itaune guztietara-ren* parean.

dempora areetan zoruai ipinten jacuen erico soñeco zuri bat, da bialdu ebeen atcera Pillatosen aurrera.

Icusi ebanian Pilatosec, zelan Herodes Erreguiac bere ez eusan emon Jesuchristori eriozaco sentencijaric, dirause Jesuchristoren contrarijuai esaten deuseela⁶⁹: Ecarri deustazu guizon au emon deijodan nic eriozaco sentencija; baiña nic eztod⁷⁰ icusten⁷¹ motiboric guizon onen contra eriozaco sentencijaric emoteco: bialdu dot Herodes Erreguiagana bere; baiña Herodesec bere ezteusa emon eriozaco sentencijaric. Baiña ez eguan moduric Jesuchristoren contrarijueen bijoz gogorrac escura eracarteco: Alan Pillatosec pensau eban beste modu bat, bere erechijan ona, Jesuchristo gure Jauna libretaco; baiña ez euzan bañjo (sic) izan. Ara emen zelan: Juezac eucan escubidia vrtian bein preso bati⁷² Pazcuaco demporaan libertadia emoteco: Icentau cituban Pilatos Juezac preso bi euretatic bati libertadia emoteco: Bata zan Barrabas erichon malechoria, eta bestia Jesuchristo gure Jauna; bada vste eban Pillatosec ce⁷³ Barrabasen comparacinoian najagoco ebeela an eguan gente aldra andijac Jesuchristori libertadia emotia. Esperanza onegaz esaten deusé Pillatos Juezac an eguan gente [11] andijari: Ara Judegutarrac: Badaquizu, Pazcuaco demporaan constumbria daguana, preso bati libertadia emoteco: Nic ipinten deusudaz bada bi escojian, aretatic zeubec nai dozunari libertadia emoteco: bata da Barrabas, eta bestia Jesus Nazarenuia ¿Zeini gura dozu libertadia emotia? ¿Nai dozu? dirause Pillatosec; ¿Nai dozu librau daidan Jesus Nazarenuia? ¿Baiña cer eranzungo dabeela⁷⁴ vste dozu, engañauric egozan gente triste areec? Quendu eguiguzu Jesus Nazarenuia gueure beguijeen aurretic, eranzuten dabe: Najago dogu Barrabas libre icustia.

Orra christinaubac, zeubeen escarmenturaco: Orra dongaro esanac, eta dongaro esaneen enzunac cetara ecarri leijeen egun bateric bestera persona baten credituba, eta bere estimacinoia. Bai christinaubac Jesuchristo gure Jaunac bere santidadiagaz, bere eracusijagaz, eta bere Milagro andijequin admiracinoe andi baten eucazan gentiac, Jerusalem, eta inguru areetan guztietan: Ez eguan dempora areetan beste cer esanic, ezpada Jesus Nazarenuaren santidadia, Jesus Nazarenuaren doctrina santuba, eta Jesus Nazarenuaren Milagruac: Ez zan dempora areetan deseetan beste gauzaric, ezpada Jesus Nazarenuia icustia, Jesus Nazarenuac cer esaten eban enzutia, eta Jesus Nazarenuagaz berbachu bat eguitia. Ezan oraindiño egun asco, Jesus Nazareno au Procesinoian Jerusalengo Ciudade atara bertara ecarri ebeela, bere icenian gentiac alabanza andijac esaten

⁶⁹ L erantsirik bi hitzok.

⁷⁰ Horrela: "eztod", 10 bat hitz beheerago "do". Ik. 12. oharra.

⁷¹ L *aurquicen*, *icusten*-en parean.

⁷² E hitz hau errepikaturik.

⁷³ Lehenbici *ce*, gero beste eskuren batek "æce" egina.

⁷⁴ E "dabeelaω".

citubeela: Ara emen Jesuchristo gure Jaunac gentiaren artian lenagoco egun aretan eucan estimacinoia; Baiña ¿cer jazo zan? Bere arerijuac tachtetan citubeen Jesuchristo gure Jaunac eguiten cituban gauza andijac, eta eguiten citubeen alequin guztijac, Jesuchristori credituba quendu, eta bere gauza guztijac dongazat emoteco: Esango ebeen, bere doctrinia zala gauza barri bat, eta euren vsadijonac quendutecua: Alan Jesusen Discipulubac Jaiegunic bere gordeten ez ebeela: Esango ebeen, eguiten cituban milagro, erechijac⁷⁵, Demoninuaren artez eguiten citubala; Esango ebeen echizerijazco milagro onequin gente gustija engaiñetan ebala, eta Erreiñu guztija alborotetan ebala. Guizon galdubequin jan edanetan ibiltan zala; esango eben⁷⁶ euren Templu ederra bere banatuteco vstia eucala; eureen Legue santubaren contra berba eguiten ebala. En fin Espiritu dongaco guizon bat zala, eta eureen Legue santubac aguinduten ebala modu onetacuai bicija quendutia.

Gauza oneec, edo modu onetacuac esango citubeen Jesuchristoren arerijuac; Zabalduco cirian esan oneec gentiaren artian egun aretan, eta icusten dabe orain bere arerijuac preso artu dabenian eguiten deuseela nai dabeen guztija. Eta esango zan ece⁷⁷ lenagoco bere milagruac eguiazcuac izan balira, & & Orregaitic leenagoco bere milagruac dauquez orain Echizerijazat; eta lenago Profeta andizat euqueena, vste dabe, dala engaiñadore bat, eta Erreiñu guztija alborotetan dabilan guizon traidore bat. Alan gente triste engaiñauta egozan areec escatcen dabe Jesus Nazarenuaren erijocia, eta esaten deusé Pilatos Juezari, naijago dabeela Barrabas malechoria libre icustia Jesus Nazarenu baiño.

Azotes

Oraindiño bere Pilatosec gura leuque⁷⁸ librau (edola bere) biciric Jesuchristo gure Jauna: Au logretia-arren aguindu eban Pillatosec azotau eguijela Jesus preso ecarreena, bada vste eban Pilatosec ce⁷⁹ azotauric Jesus icusi ezquero bigunduco zala an eguan gentiaren coleria vel⁸⁰ gogortasuna ¿Baiña noc esan lei zetarañocua izan zan orduban Jesuchristori emon euseen tormentuba? Lotu ebeen Jesus mansua Pillar (sic) batera, eta asi ciran borreru cruel bi, bata alde batetic, eta bestia bestetic Jesus iñocentia azotetan; baiña ain amorru andijagaz, ce ecin esan zeitequian azotau eguiten ebeela, ezpada, zatitu, eta puscatu eguin gura ebeela.

⁷⁵ I. *erechicua*. Beraz, "milagro *erechicua*".

⁷⁶ I. dago *esango eben*, *En fin* ezabaturik.

⁷⁷ L. luma lodiago tinta beltzez erantsia: "eta esango... balira, & &". Beste esku batek ote, eta horregaitik "æc"?

⁷⁸ L. *vel gura eban vel gura euquian*, *gura leuque*-ren parean.

⁷⁹ Lehenbizi *ce*, gero, beste esku batek?, "æc" eginik.

⁸⁰ L. *eta eureen*, *vel*-en parean.

Cansau⁸¹ cirian borreru bi areec; etorri ciran beste bi eta azotau eta zaituten ebeen Jesusen gorpuza beste aimbeste crueldadegaz; Oneec bere cansau cirian eta etorri ciran beste bi: Areec bere cansau cirian Jesusen gorpuz ederra azotau, edo puscatuten; da Jesus amorosua zan bacarric, gure erruquitasuna gaitic padeciutian aspertuten ez zana: Alan borreru cruel areec ipini ebeen Jesuchristo gure Jauna odol bat eguinic, bere espaldetaco [12] azurrac bere aguertuco jacozan moduban.=

Coronacion de Espinas

Ascatu ebeen Jesuchristo gure Jauna Pillar artatic, borreru cruelac azotetiaz cansau cirian; da emen asi zan beste tormentu bat lenagocuaren *azlcarrija* (sic), zein zan aranzazco coroiagaz bere buru delicaua jostia. Barriz emen icusico dozu tormenturic penagarrijenagaz Jangoicuaren Seme oni desprecijoric burlagarrijenac eguiten. Bai christinaubac. Esaten zan leguez Jesuchristoc izan gura ebala Judegutarreen Erregue, asmau ebeen soldadu gaistuac, estadu lastimoso atan, guztija zaituric eguan Jesus amorosuari, burla gueijago eguitia gaitic, Erregue bati datorcazan insignijac destaiñez⁸² ipintia. Janzi euseen bada Erreguezaco insignijazat grana gorrizco capa bat; Ipini euseen escubetan Erreguiaren insignijazat, Cetrua; eta bere buruban corioia. Guztija destainez, da guztija burla gueijago eguitiagaitic.

¿Baiña cerzuc ete cirian, Jesuchristori Demoninuaren Ministro areec ipini eusezan Erreguezaco insignia burlagarrizco oneec? Grana gorrizco capia izango zan, bazterreen baten topau zan granazco capa zaarreen baten zatiren bat: Jesus penazco oni ipini euseen Erreguezaco Cetrua zan caiñabera bat bere escubetan ipintia; Baiña O! icaragarriena! Jesus penazcuari buruban Erreguezaco insignijazat ipini euseen corioia ¿zelacua ete zan? Eguin ebeen aranza gogor batzubequin coroe bat, da ipini euseen bere buruban, buru guztija josten euseela, da izan leitteque, aranza punta batzuc garuñetaraiño bere sartuten jacoza. ¿Zelan egongo ete zan trance penazco onetan Jesus delicatubaren buruba? ¿Zelan egongo ete zan Jesusen arpegui ederra, burutic beera erijozazan odol iturrijeen artian? ¿Ezagutuco ete euquian bere Ama maitiac? Estadu lastimoso onetan, guztija odoletan eguala, jarten jacozan burlaz soldadubac belaunico bere aurrian, da esaten euseen, destainez: Agur Judegutarreen Erreguia, Ave Rex Judaeorum.

Quenduten euseen escubetan ipini euseen caiñabera, eta caiñabera onegaz joten ebeen, bere buruba josita eucan aranzazco coroiaren gainian, eta botaten euseezan, odoletan eucan bere arpeguira, chistu gorruac.

⁸¹ Lehenbizi "Cansetan", "etortien", "cansetan", "etortien", "cansetan", eta gero "Cansau", "etorri", etab. eginak esku berak.

⁸² L. *burlaz, destaiñez*-en parean.

Ichura icaragarri onetan, guztija maltratauric eguala, eta guizona (sic) ichuratic bere ez eucala, atera eban Pilatosec Jesuchristo bere Palacioco balcoe batera, Palacijuaren aurrian eguan gente aldra andijari eracusteco; vstes, ain estadu lastimosuan icusi ezquero, ichico euseela biciric Jesuchristo gure Jaunari: Alan Pilatosec an eguan gentiari Jesuchristo ain ichura lastimosuan aguertuten deuseela, dirausé; Ecce homo. Esaten baleuse leguez. Ara emen, zubez illtia escatcen dozuna⁸³: Bildur ciñan quendu ez eguizun Erreñuba; baiña beguiratu eguijozu, eztaguala ya Erregue izateco estaduban. Ecce homo. Beguiratu eguijozu zein estadu penazcuan daguan guizon triste au. Guizon onen eriocia escatcen dozu? baiña ¿cer erioza penazcuagoric emon leijo⁸⁴, peniaren penaz guztijau tormentu baten illten badago? Baiña eztago erremedijoric: Crucifige; Crucifige: Crucifige: Crucificau eguizu: Curucian josi eguizu, diadar eguiten deusé Pilatosi Jesuchristoren arerijo amorrotubac, baita⁸⁵ amenazau bere eguin ebeen Pillatos, esaten euseela, galduco ebala Cesar Emperadoriaren balimentuba, emoten ezpaeban Jesuchristoren contra eriozaco sent[encij]a. Icusiric Pilatosec, ez eguala erremedijoric, emon eban Jesuchristo gure Jauna illteco sentencija; baiña protestau eban Pillatosec, da esan eban, ez ebala berac illten, da libre eguala bera guizon onen⁸⁶ eriozatic. Alan Pilatosec bere buruba garbituteco, da ez eucala berac erruric Jesuchristoren erioza onetan aituten emoteco, garbituten dituz vretan bere escubac, esaten dabela. Eztot nic parteric guizon onen eriozaan: Zeubez illten dozu; Zeubeen gaiñera dua: Zeubez icusico dozu. ¿Baiña ¿cer eranzuten dabé aĩn emeñu andijagaz Jesuchristoren erijocia escatcen ebeen arerijuac? Betor gueure gaiñera; diñue: Betor gueure gaiñera guizon orren odola. [13] Pilatosec eriozaco sentencija emon ebanian, ecarri zan curuce andi bat, da ipini euseen Jesuchristo gure Jaunari bere sorbaldeen gainian, Calbarioco mendira eruan eguijan. Vrten eban Jesus amorosuac, curuce astuna bere lepuan ebala, eta artu eban Calbarijoco Mendiruz bidia; Baiña ain eguan aguinte bagaric, ce⁸⁷ curuciaren pisubagaz jausi zan iru bidar luurrera bidian. Icusiric borrreru cruelac, Jesuchristo gure Jauna ain aguinte bagaric, aguindu euseen Simon erichon guizon bati, lagundu leijola Jesuchristori curucia eruaten; Ez Jesuchristoren erruquiz, ezpada vste ebeelaco, ecin curuciaren pisubagaz elduco zala Calbarijoco mendira biciric, da alan ecin lograuco zala, vste zan deseo madaricatuba, zein zan Jesuchristo gure Jauna deshonrraric andijenian, curucian josiric, illtia.

Eldu zanian Jesuchristo Calbarioco mendira, asi jacozan borrrerubac Jesus amorosuari bere soinian eucazan erropaac quenduten, da emen barriztau euse-

⁸³ Horrela lehenbizi, eta gero: "Ara emen Judegutaar gentiatic: Ara emen, zubez illtia escatcen dozun guizona".

⁸⁴ L *nai deusazu, leijo*-ren parean.

⁸⁵ L artean eta toki estuan eta ez erosoan erantsia dago esaldi hau, "baita" letra larriz hasteko.

⁸⁶ L *aren, onen*-en parean.

⁸⁷ Lehenbizi *ce*, gero tinta beltzez "œ" egina.

zan leenagoco tormentubac. Ara zelan: Jesuchristo gure Jaunac eucan bere soinian Virginia⁸⁸ S[antisi]ma bere amac eguifico Tuniquia; edo esan daigun bardin, alcondaria: Tunica au zan joscura bagacua, eta borrerubac nai izan euseen quendu oso osoric, euretaric batenzat osoric gueratu zedin zeini suertian vr teten eusan. Pensau eguizu ondo, zelan tunica au egongo zan bere gorpuceco epaijequin bat eguifico leguez, bere espaldetatic vr ten eban, eta bere burutic jatsi jacon odola gogortu zanian: ¿Cer⁸⁹ izango zan bada epaijequin, da odol gogortubagaz itsasita eucan Tunica au bere gorpuceco osoric quendutia? Borreru cruel areec bi edo iruren artian, beetic tiraca quenduco euseen, oso osoric vr ten al leijan, tuniquiagaz batera ezpaldetaco epaijeen zatijac bere quenduten euseezala: Orduban, tuniquiagaz batera vr tango eban bere buruban eucan aranzazco coroiac, bere aranza zatijac buru barruban gueratuten jacozala: ¿Cer izango zan bada, aranzazco coroe au barrien barri bere buruban ipintia? Aranza punta bazuc sartuco jacozan leenago bere buru[ban] eguazan zuluetic; beste aranza punta batzuc zulo barrijac eguificiarco citubeen, buruban sartuteco; beste batzuc, leenago buruban gueratu cirian aranza punta ausijai icututa, atcera eguingo ebeen sartu ezcinic: ¿Baiña noc dauca bijoza au gustiau esateco? bada pensetiac berac icara eraiten dau?

Crucifixion

Ezarri ebeen bada Jesus amorosua curuciaren gaiñera, da luzatu cituban Jesusec bere escubac, eta oiñac poz andi bategaz, ya eldu zalaco gure erremedijuagaitic bere bicija emoteco demporia; Josi ebeen ulce andi bazubequin; Jaso ebeen curucia⁹⁰, eta ipini eben Jesuchristo beste curuce bitan esegui citubeen lapur biren erdijan: bada alde guztietatic gueitu gura zan, ez bacarric Jesus inoentiaren penia, baita Jangoicuaren Seme oni emon gura jacon afrentia bere. An egon zan eseguiric Ceruco Erreguia deshonorric eta penaric andijenian, nun bere buruba descansau ez eucala: An egon zan iru orduco agonija larrietan Jangoico poderoso baten Semia, gente guztijac, batez bere, bere arerijo cruelac, barre, eta burla eguiten euseela. ¿Baiña noc esan leiz Jangoicuaren Seme oni curucian eseguita egon zan dempora atan esan jacozan afrenta andijac, eta eguificiarco jacozan injurija andijac? Batzuc, eureen burubai eraiten euseela, esango ebeen burlaz: Ara or nun daguan gueure Templu ederra banatu, eta irugarren eguneco eguingo eban guizona. Beste batzuc esango ebeen: Jatsi zaitetz Christo curuce orretatic Jangoicuaren Semia bazara eta orduban sinistuco deusugu⁹¹: Beste bazuc

⁸⁸ L *Marija*, *Virginia*-ren parean.

⁸⁹ L toki estuan "*celan izango zan*" dago, "*¿Cer izango zan bada*"-ren parean.

⁹⁰ L "*curucian josiric*", *curucia*-ren parean.

⁹¹ Lehenbizi: "Jatsi zaitetz Christo curuce orretatic da orduban sinistuco deusugu". Gero esku berak, testuan ipini dugun aldaera.

esango ebeen; beste asco librau cituban, da orain ecin librau dau bere buruba. Modu onetaco desprecijuac enzuten eta padeciuten egon zan Jesuchristo Jangoicuaren Semia iru ordu triste areetan.

Baiña ¿cer eguiten dau Jangoicuaren Seme onec, aimbeste desprecijo enzuten da icusten ditubanian[?] ¿Cer eguiten dau aimbeste injurija errecebiuten ditubanian, eta ain agrabijo andijac bere Magestade andijari eguiten deusezarian? ¿Artuco ete eban bengaija, ain dongaro tratetan dabeneen contra: Pater, ignosce illis; quod enim faciunt nesciunt, dirauso bere [Aita] Eternuari: Neure Aita maitia, esaten deusa, parcatu eguijuezu orrei, bada eztaquije cer eguiten dabeen. O ce exempluba au gure egunetaraco[!] Barriz ezagutu ebanian [14] eldu zala bere azquenengo Momentuba, esaten deusa bere Aita Eternuari. Aita, zure escubetan ipinten dot neure Espirituba. Au esanagaz batera ill zan Jesus Jangoicuaren Semia.

Ara emen christinaubac, cembat costa jacon Jangoico bati, gu Ceruco bidian ipintia⁹². ¿Cer gueijago eguin biar ete eban Jangoico amoroso, eta erruquior batec gugaitic? ¿Cer lizate (edola bere) gugan esquer ona icusico baleu? Gauza onec enzunagaz tachau gura guenduquez Judegutarrac, aimbeste mesederen guenian Jesuchristori ain esquer charra emon euseelaco; Baiña O! ¿esquer obia ete dauca Jangoicuaren Seme onec christinau ascoren artian? Ez eban ordu artaraiño Jangoicuaren Seme [onec] emon bere bicija Judeg[ut]arrac gaitic, gu gaitic orain emonda daucan leguez: Barriz ez equijeen Judegutarrac ciur, Jangoicuaren Semia zanic, guc orain daquigun leguez. ¿Cer izango da bada gugaz baldin Judegutarrac ez jaquinez, Jangoicuaren Semiari eguin euseen au berau, guc jaquinaren gainian eguiten badeusagu? ¿Cer diñozu pecatari tristia? ¿Oraindiño bere, ill bedi: Crucificau bedi diñozu pecatari tristia? ¿Oraindiño bere, ill bedi: Crucificau bedi Jangoicuaren Seme ori, diñosu zeure pecatubequin? Quendu daigun Jangoicuaren Seme ori, gueure bistatic, diñozu (sic)? Naijago dogu Demoninuari jarraitu, eta gueure libertadian⁹³ ibilli oraindiño bere esaten dozu? Oraindiño bere barrien barri curuce onetan josi nai dozu Jangoicuaren Seme au? Baiña nic dirausud (sic) zubei Pilatosec Judegutarra leguez Ecce Homo. Beguiratu eguijozu, dirausut nic zubei egun onetan: Beguiratu eguijozu zubeen eta nire⁹⁴ erremedijua gaitic guizon eguin zan Jangoicuaren Seme oni: Ecce Homo. Beguiratu eguijozu, zelan ipini dabeen gure zorrac pagau biarrac Jangoico poderoso baten Seme au. Ecce Homo. Beguiratu eguijozu zelan daguan burutic biaceraíño laga (sic) bat eguinic. ¿Cer eguin gura deusazu guijago (sic) Jangoico guizon penazco oni? Oraindiño bere zeubeen pecatubequin barrien barri Curuce onetan josi gura dozu? Baiña nic beste modu batera dirausut Ecce Homo. Ecce Homo dirausut

⁹² Lerro artean eta orrialdearen ezkerreko bazterrean ipinitakoaren arabera, hau dugu: "Ara emen christinau devotuac: Ara emen pecatarijac Ara [...] enzuten zagozan christinaubac! Aqui tomar la cruz".

⁹³ L *gueure nasaitasunetan, gueure libertadian*-en parean.

⁹⁴ E bi hitzok azpimarraturik edo daude, kendu behar direla adierazteko edo.

zubei: Ara emen nun daucazun zubeen pecatubeen Juez icaragarrizco bat izango dan guizon eguinico Jangoicua. Baiña beronegana benetan biurtu gura badozu dirausut; Ecce Homo. Ara emen bioz garbatubagaz beronegana etorten jaczane-en Erregue parcazaillia Ecce Homo; Emen daucazu curuce onetan eseguita, beti bere besuac zabalic, zain, nos zubez elduco ete zarian beronegana. Baiña ez Judasec leguez, bioz falsuagaz mosu eguiten deusazula. Ez gaur beroni mosu eguin, eta Pazcua ostian beronen Demonino beronen⁹⁵ arerijuen lagun izateco vstiagaz, ezpada beroni oin bijetara jarraituteco determinacinoe firme bategaz. Determinacinoe⁹⁶ onegaz bazatoz, etzun zaitetz Erregue parcazaille onen oiñetara: Esan eguijozu lenagoco pecatubeen peniagaz, eta aurrerancian beti beroni jarraituteco pensamentubagas=Neure Jesuchristo Jauna & & &⁹⁷

Emon deizun bere bedeincacinoia⁹⁸; Alan izan dedilla; Aitiaren, da Semiaren, da Espiritu Santubaren icenian= Amen⁹⁹.

[15]

+

Sermon de Pasion en Aulestia año 1833¹⁰⁰

Otro modo de introduccion para el Sermon de Pasion a mas del que se ha puesto en la oja (sic) siguiente. Vide mas adelante esto mismo.

Aguertu da aguertu da¹⁰¹ pecatubaren anditasuna christinau devotuac; eta gaur Eleixa Ama santiac presente eguiten deuscuzan jazoera lastimosuetan aguiri da. Aguertu da bai Jangoicua, pecatubari eusan gorrotua, eta gure adin (sic) laburrac aditu ecin badau bere Aita Eternuac aguertu deuscu, gueure fijadore sartu zan bere Seme maitiaren gaiñera descargau dituban colpe crueletan: Lutuz janci dabee Ceruba, pecatubaren satisfacinoia emon biarragaitic Jangoicuaren Semiari eldu jacozan pena, tormentu, eta erioza lastimosuac. Sentiduric ez euqueen criaturaac eurac bere eguin ditubee sentimentuzco=penazco demonstracinoeric andijenac jazoera ain lastimosueen aurrian: Arrijac eta achac puscatu dira, Jangoico eureen Eguillia aimbeste padeciuten icusi dabeenian: Luurra asi da icara eguiten, J[a]ngoi-

⁹⁵ L erantsirik "Demônio (sic) beronen".

⁹⁶ L *Determinacinoe*-ren parean beste esku batek *Eragui* idatzi du, XIX mendeko moduan egiten duela *r* kontsonantea.

⁹⁷ Paragrafo honen azetik, bere azken lerroan hasten dela: "Ill bedi nigan pecatuba orain eta betico, esan eguijozu determinacinoe firme bategaz".

⁹⁸ L honela berridatzia: "Emon deidazun orain zeure bedeincacinoia eta guero Ceruban betico gloriija".

⁹⁹ Hemendik aurrera orrialde bukaeran erantsia: "Neure Jesuchristo Jauna & Esan eguijozu eguijozu (sic: bi aldiz) determinacinoe firme onegaz ill bedi nigan pecatuba orain, da betico emon al deizun orain bere bedeincacinoia eta guero Ceruban betico gloriija. Alan izan dedilla. Aitiaren, eta Semiaren, eta Espiritu Santubaren icenian. Amen".

¹⁰⁰ Zenbatu gabe dauden sermoiaren lehenengo bi orrialdeetan eta, hori moldatu zenean, zuri gelditu zirenetan daude idatzia hemendik aurrerako gaiak.

¹⁰¹ L bigarren *aguertu da* luma lodiago eta tinta beltzez.

cuaren Seme bat bere gainian ill danian: Jerusalengo Templu ederraren Estalgarrija goitic beeraiño eguin da erdi bi Mesias Prometiduba, eta Mundubaren erremedijua Munducuac¹⁰² eurac ill dabeenian: Eguzquiya illundu da egunaren erdijan, berari arguija emoten eusan Jangoicuaren Semiari bicija quendu deusenian.

Baldin ba O! Neure christinaubac¹⁰³; vel O pecatari tristia! O! pecatari achac baiño bere bijoz gogorragocua! baldin ezpadaquizu zein andija dan pecatubagaz Jangoicuari eguiten deusagun agrabijua gaur enzungo dozu; zein satisfacinoe andija artu gura izan eban Aita Eternuac bere Seme maite baten buruban; eta au iñoren pecatubac gaitic. Eta baldin ezpadaquizu, zelan ipinten dozun zeubeen arima ederra, araco ain bildur bagaric pecatu mortal bat eguiten dozun trance icaragarrizcuan, icusico dozu gaur, zelan ipini eban Jangoicuaren Seme bat, pecatubaren satisfacinoia, iñoren orde, emon biarrac. Beguiratu eguijozu gaur zeubeen consideracinoiagaz Jesus, Jangoicuaren Seme, zeubeen fijadore sartu zan, guizacumeric ederranari: Erreparau eguijozu ondo, eta icusico dozu guizonaren ichurric bere eztaucala. Barriz badago zubeen artian, bere pecatubac gaitic Jangoico aserre baten bildur guichigaz bici dan atrebiduric, guc beguiratuteco gaur ipinten jacun ispillu lastimoso onetan icusico dau, zelan Jangoicuac castiguetan dituban iñoren pecatubac bere Seme laztan, eta erru bagaco baten buruban. Quem proposuit ad ostensionem Justitiae suae. Eta bada christinaubac, Jangoico zuzen batec iñoren pecatubac onan castiguetan badituz: Au Jangoicuac eguiten badau maite maite daben bere Seme bategaz; eta au eguiten badau iñoren¹⁰⁴

[16] **En la crucifixion falta lo siguiente**

Josi euseezan escubac eta oiñac ulce andi batzubequin...

**En el cuerpo del Sermon antes de la ida
al huerto de Jetsemani dire**

Beguiratu¹⁰⁵ eguijozu pecatarija; Beguiratu eguijozu zeure arima tristiari; Icusi eguizu zelan daguan, negarrez; icatza bera baiño balzaago eguinic; bere Jangoicuac beguiratu bere nai ezteusala; Dem[on]inueen escubetan, Demoninueen jolasa eta Demoninueen esclavo bat eguinic.=

¹⁰² Hitz honen ezkerrean, gure ustez baztertu-kendurik, *guizonac vel*.

¹⁰³ Lehenbizi honela: "Baldin bada neure christinaubac; baldin ezpadaquizu zein andija..." Gero esku berak eta beste (?) batek berridatzia guk transkribatu dugun bezala.

¹⁰⁴ Horrela bukatzen eta honako hau eransten ezkerretik eskubira egin duen marra horizontal baten azpian: "Todo lo demas como esta a la buelta (sic) dela (sic) introduccion siguiente".

¹⁰⁵ Ezkerreko bazterrean: *O pecatarija! pecatarija!*

Despedida o Ida al Huerto de Jetsemani

Despeidu zan bada Jesus amorosua; Apartau zan bere Ama Santiss[im]iagan-
dic &.

Adiciones en algunos pasos de este sermon En la traicion de Judas lo siguiente¹⁰⁶ Esto en lo de Pilatos

Baita esan bere eguin euseen, galduco ebala Emperadoriaren adisquidetasuna edo balimentuba, emoten ezpaeban Jesuchristoren contra eriozaco sentencija.

Eldu zanian bada Judas gente armaubaren aurrian, mosu eguiten deusa Jesuchristo gure Jaunari, esaten deusala; Agur Maisuba (vide si este paso es asi Ave Rabi= como se dira) ¿Cer eranzungo ete eusan Jesusen bijoz erruquiiorrac, ain falsaqueria andija eguiten eusan bere Discipulubari? ¿Judas? esaten deusa: Mosu eguinaz entreguetan dozu guizonaren Semia? (Aqui puede añadir Tamquam ad latronem & q[u]e dijo a los sacerdotes y &) Orduban Jesus amorosuac itanduten deuse armauta etorzan gentiari, ya noren billa etorzan & y proseguir lo demas como dice en la oja (sic) quarta¹⁰⁷.

En la oja (sic) quinta a la buelta (sic) hablando de Pilatos se puede añadir diciendo asi

Orregaitic Pilatosec eguin cituban gauzaric asco Jesuchristoren contra berac eriozaco sentencijaric ez emoteco, eta onetari bat izan zan juzgauco eban beste bategana bialdutia. Bai christinaubac¹⁰⁸. Jaquin ebanian bada Pilatosec Jesuchristo zala Galileatarra bialdu eban Herodes Erreguiagana; bada Herodes zan Galilea parteco Erreguia, eta egun areetan arquituten zan Jerusalengo Ciudade atan bertan.

Asco alegrau san Herodes Erreguia Jesus preso fama andico au bere Tribunalera bialdu eusenian, bada eucan enzute andija Jesus Nazarenuaren milagruen gainian, da vste eban Herodes Erreguiac ce Jesus fama andico onec mila-

¹⁰⁶ Titulu honen eta berari dagokion testuaren artean Pilatosi buruzkoa sartu da luma lodiago eta tinta beltzez, baina sermoia moldatu duenak berak egin duela esango genuke.

¹⁰⁷ L. *gente arei, gentiari-ren* parean.

¹⁰⁸ E. B. C.

groren bat eguingo ebalá, bere aurrera acusauta ecarrenian. *Baina* (sic) ah! como dice ibi.

En lo de Judas se puede añadir lo siguiente

Barriz traicinoiari eta fals[a]querijari beguiratuten badeusagu, cembat christináu etorten eztira dempora santu onetan confesoriaren oinetara, Jesuchristoren adisquide izatia gura dabeelacuan, confesinoia¹⁰⁹ eguin, eta eureen bicimodu pecatuzcuari jarraituteco vstian dagozala? ¿Cembat Judas leguez Jesuchristoren conbidau comuninoeco Mai santuban Pazcuaco demporean egon, eta Pazcua ostian Demoninuaren lagun eguiten eztira Jesuchristori bicija, al baleijue quenduteco?

¹⁰⁹ E "confesinoiaz".

HIZTEGIA

Agur (interj.) ‘agur’ Judegutarren Erreguia ‘Ave Rex Judaeroum’ 12,2; *Agur* Maisuba ‘Ave Rabi’ 16,5; *agur* neure Ama maitia (azken agurra ematen) 4,3.

1 Al izan (ad.) ‘ahal izan’. *albalizate* irago bedi 6,1; onan esan *albalei* 7,2; *bicija*, *al baleijue* quenduteco 16,8.

2 Al (partikula) *acordauco albaliz* ‘baldinba, oxala...’ 7,3; *eguingo deusaz mese-diac*,... *biurtuco albaliz* beraganuz ‘baldinba, oxala...’ 7,3.

3 Al (partikula) *artu al deijogun* ‘baldinba...’ (?) 3,3; *pensau al daijan* 2,2; *oso oso-ric vrten al leijan* 13,2.

Albiste (iz.) ‘berri’. *albiste* 2,4.

Amorrotu (ad.) ‘amorratu’. *amorrotuten* 10,1; *amorrotubac* 12,4.

Banatu (ad.) ‘hautsi, apurtu’. *banatu* 13,3; *banatuteco* 11,2.

Bengai (iz.) ‘mendeku’. *bengaija* 13,4.

Deretxo (iz.) ‘eskubide, *ius*’. *derechua* 9,1 (2). Ik. *Eskubide*.

Destain (iz.) ‘iseka, burla’. *destainez* 12,2 (lehen idazketan); *destainez* 12,2 (bazte-rreran erantsirik).

* **E**din (ad.) ‘bilakatu’.

- *balei* ‘baledi’ 7,3.

- *bedi* ‘bedi’ 8,3; etab.

- *bei* ‘bedi’. *eguin bei* 8,3.

- *beite* ‘bedi’. *ezpeite eguin* 6,1.

- *daquizuzan* ‘dakizkizuen’ e,1.

- *dedin* ‘dadin’. *biurtu eztedin* 7,4.

- *dedilla* ‘dadila’ (= *dadin*) 14,3.

- *ditezela* ‘daitezela’ (0 *daitezen*) 2,2.

- *gaitian* ‘gaitezen’ 10,1.

- *leiteque* ‘liteke’ 4,4; 12,2.

- *leitian* ‘litekeen’ 6,4. Zehar galderan.

- *zaitez* ‘zaitez’ 4,3; 13,3.

- *zaite* ‘zaitez’ 5,3. Ik. 29 oharra.

- *zaitez* ‘zaitezte’ 2,1; 14,2.

- *zaitequez* ‘zaitezte’ 7,4.

- *zedin* ‘zedin’ 13,2.

- *zeitequian* ‘zitekeen’ 11,4.

- * Edun (ad.) 'izan, eduki'.
- *baguensquijo* 'bagenio' 6,4.
 - *baleu* 'balu' 9,2; 14,2.
 - *baleuse* 'balie' 12,4.
 - *baleusée* 'balie' 3,1.
 - *daben* 'duen' 1,2; etab.
 - *dabenian* 'duenean' 8,3.
 - *dabela* 'duela' 12,4.
 - *dabe* 'dute' 2,4; etab.
 - *dabé* 'dute' 12,4.
 - *dabée* 'dute' 9,2.
 - *dabee* 'dute' 15,2.
 - *dabeela* 'dutela' 11,1; 11,3.
 - *dabeen* 'duten' 6,2; etab.
 - *dabeenac* 'dutenak' 9,3.
 - *dabeenian* 'dutenean' 15,2.
 - *dabeneen* 'dutenen' 13,4.
 - *dabenian* 'dutenean' 11,3.
 - *dau* 'du' 1,2; etab.
 - *deusa* 'dio' 3,1; etab.
 - *deusala* 'diola' 6,3.
 - *deusanari* 'dionari' 2,2.
 - *deusagu* 'diogu' 6,4; 14,2; 16,8.
 - *deusagun* 'diogun' 15,3.
 - *deusaguz* 'dizkiogu'. eguiten ezteusaguz 9,1.
 - *deusadana* 'diodana' 6,3.
 - *deusaz* 'dizkio' 7,3.
 - *deusazan* 'dizkion' 2,2.
 - *deusazanian* 'dizkionean' 9,1.
 - *deusazu* 'diozue' 14,2.
 - *deusazula* 'diozula' 14,2.
 - *deusé* 'die' 6,3 (2); 7,1; 10,5; 11,3.
 - *deuse* 'die' 7,1 (3); 7,3; 9,2; 16,5.
 - *deusée* 'die' 3,1; 7,1.
 - *deuseela* 'diela' 10,5; 12,4.
 - *deusé* 'diote' 11,3; 12,4.
 - *deusenian* 'diotenean' 15,2.
 - *deuseen* 'diote' 8,3 (2).
 - *deuseen* 'dizkion' 8,2.
 - *deusezanian* 'dizkotenean' 13,4.
 - *deusedan* 'diedan' 2,4.
 - *deuscu* 'digu' 6,2; 15,2.
 - *deuscubenez* 'digutenez' 4,2.
 - *deuscuzan* 'dizkigun' 9,1; 15,2.
 - *deust* 'dit' 4,3.
 - *deustazanian* 'dizkidanean' 9,1.
 - *deustazanian* 'dizkidanean' 9,1.
 - *deustazu* 'didazue' 10,5.
 - *deustazuz* 'dizkidazu' 9,1.
 - *deusud* 'dizut' 9,1.
 - *deusud* 'dizuet' 3,1. Ik. "deusut".
 - *deusudaz* 'dizkizuet' 11,1.
 - *deusugu* 'dizugu' 13,3.
 - *deusun* 'dizuen' 9,1.
 - *deusunic* 'dizunik' 1,1.
 - *deusut* 'dizuet' 7,1. Ik. "deusud".
 - *ditubala* 'dituela' 9,2(4).
 - *dituban* 'dituen' 1,2; 8,3(2); 15,2; 15,3.
 - *ditubanian* 'dituenean' 13,4(2).
 - *ditubee* 'dituzte' 15,2.
 - *ditubeelaco* 'dituztelako' 1,1.
 - *dituz* 'ditu' 1,2; 7,3(2); 9,2; 10,1; 12,4; 15,3.
 - *dod* 'dut'. eztoz icusten 10,5. Ik. "dot".
 - *dogu* 'dugu' 2,4; 9,2; 11,1.
 - *dot* 'dut' 4,3; 9,1; 10,5.
 - *dozu* 'duzu' 4,3; 9,1; 9,2.
 - *dozu* 'duzue' 1,2; 5,4; 11,1(4).
 - *dozunari* 'duzuenari'. zeubec nai dozunari 11,1.
 - *eban* 'zuen' 1,2; etab.
 - *ebanian* 'zuenean' 8,3.
 - *ebala* 'zuela' 9,2.
 - *ebeen* 'zuten' 3,1; etab.
 - *ebeena* 'zutena' 6,3.
 - *ebeenac* 'zutenak' 8,3.
 - *ebeela* 'zutela' 8,3; etab.
 - *ebéela* 'zutela' 10,3.
 - *ebeelaco* 13,1.

- *eben* ‘zuten’ 11,2; 13,3: Sei aldiz “*ebeen*” eta behin “*ebæn*”.
- *ebéneco* ‘zuteneko’ 7,1.
- *ebenian* ‘zutenean’ 8,2.
- *eusan* ‘zion’ 4,2; etab.
- *eusala* ‘ziola’ 8,3.
- *euseen* ‘zien’ 4,1; 7,1.
- *euseen* ‘zioten’ 8,2; etab.
- *euseén* ‘zioten’ 10,2.
- *euseela* ‘ziotela’ 8,2; etab.
- *euseelaco* ‘ziotelako’ 14,2.
- *euseela* ‘zietela’ 13,3.
- *euseezan* ‘zizkioten’ 5,4; etab.
- *euseezala* ‘zizkiotela’ 8,2(2); 13,2.
- *eusezan* ‘zizkioten’ 8,2; etab.
- *euscun* ‘zigun’ 8,2.
- *eusubeen* ‘zizuten’ 1,1.
- *guenduque* ‘genuke’ 6,4; 8,3.
- *guenduquez* ‘genituzke’ 14,2.
- *leuque* ‘luke’ 11,4.
- *nau* ‘nau’ 4,3.
- *nabe* ‘naute’ 4,3.
- *neban* ‘nuen’ 5,3.
- *nebala* ‘nuela’ 4,3; 9,1(2).
- *neusula* ‘nizula’ 9,1.
- *ninduban* ‘ninduen’ 4,3.
- *nozu* ‘nauzu’ 4,3; 9,1(2).
- *zaituban* ‘zaituen’ 10,2.
- *zaitubala* ‘zaituztela’ 7,4.
- *zaitubeelaco* ‘zaituztelako’ 1,1.
- *zaitudaz* ‘zaitut’ (nik zu) 9,1(2); 9,2.
- *zaituz* ‘zaituzte’ (hark zuek) 10,1.
- *zenduban* ‘zenuen’ 2,4; 9,1(2).
- *zenduban* ‘zenuten’ 4,2.
- *zendudazan* ‘zintudan’ 9,1(3).
- *zenduzan* ‘zenituen’ 1,1(4).
- *cituban* ‘zituen’ 3,3; etab.
- *citubala* ‘zituela’ 11,2.
- *citubeen* ‘zituzten’ 1,1; etab.
- *citubeela* ‘zituztela’ 11,2.
- *egin* (ad.) ‘zertu, burutu’.
- *eguin* ‘egin’ 3,1.
- *baleijue* ‘baliezaiote’ 16,8.
- *daidan* ‘dezadan’ 11,1.
- *daigun* ‘dezagun’ 1,1; 10,1; 13,2.
- *daijan* ‘dezan’ 2,2.
- *daizan* ‘ditzan’. *eztaiizan* 10,1.
- *deidadzun* ‘diezadazun’. Ik. 98 oharra.
- *deijodan* ‘diezaiodan’ 10,5.
- *deijogun* ‘diezaigun’ 3,3.
- *deijueen* ‘diezaion’. *ezteijueen* 7,3.
- *deiquezun* ‘diezazuekeen’. *ezteiquezun* 6,3.
- *deizun* ‘diezazuen’ 14,3.
- *deizunian* ‘diezazunean’ 8,1.
- *eguidazu* ‘iezadazu’ 9,1.
- *eguiгузу* ‘iezaguzu’ 11,1.
- *eguijan* ‘zezan’ 13,1.
- *eguijela* ‘zezatela’ 11,4.
- *eguijozu* ‘iezaiozu’ 5,2; 10,2.
- *eguijozu* ‘iezaiozue’ 1,2; 12,4; 14,2(5); 15,3(2).
- *eguijuezu* ‘iezaiezu’ 13,4.
- *eguiзу* ‘ezazu’ 5,2; etab.
- *eguiзу* ‘ezazue’ 1,2; 9,1.
- *eguiзun* ‘ziezazuen’ (hark hurazuei) 12,4.
- *iguzu* ‘iezaguzu’. *emon iguzu* 2,4. Ik. “*eguiгuzu*”.
- *izu* ‘ezazu’. *Consideraizu* 5,2; *pen-saizu* 8,1.
- *lei* ‘lezake’ 4,4; 8,2; 11,4.
- *leijan* ‘zezan’ 13,2.
- *leijeen* ‘lei, lezake’ 11,2. Zehar galderan.
- *leijo* ‘liezaioke’ 12,4.
- *leijola* ‘liezaiola’ 13,1.
- *leiquijon* ‘liezaiokeen’ 7,4. Erlat. perpausean.
- *leiquijuena* ‘liezaiekeena’ 3,1. Ut. s.
- *leiz* ‘litzake’ 13,3.

- *neizu* 'niezazuke' 9,1.
 - *neizu* 'niezazueke' 8,3.
- Egon (ad.) 'izan'.
- *egon* 'egon' 7,4.
 - *dago* 'dago' 1,2.
 - *dagoz* 'daude' 7,2.
 - *dagozala* 'daudela' 16,8.
 - *dagozan* 'dauden' 2,4.
 - *daguan* 'dagoen' 5,2; 13,3.
 - *egozan* 'zeuden' 11,3.
 - *egozanak* 'zeudenak' 4; 10,3; 11,1.
 - *egozaneen* 'zeudenen' 3,4.
 - *eguan* 'zegoen' 4,3; etab.
 - *eguala* 'zegoela' 12,4.
 - *eguanac* 'zegoenak' 3,1.
 - *gagozanetatic* 'gaudenetatic' 6,4.
 - *nago* 'nago' 5,3.
- Ekarri (ad.) 'ekarri'.
- *ecarri* 'ekarri' 2,4.
 - *dacargu* 'dakargu' 8,2.
 - *dacarzuzan* 'dakartzazun' 1,1. Erlat. perpausean.
 - *ecarreena* 'zekartena' 11,4.
 - *ecareenian* 'zekartenean' 10,4.
 - *ecarrenian* 'zekartenean' 16,7.
- Epai (iz.) 'zauri'. *epaijequin* 13,2(2); *epaijeen* 13,2.
- Erabilli (ad.) 'erabili'.
- *erabillala* 'zerabilela' 5,4.
- Eraisi (ad.) 'eraitsi, jaurtiki, jaitsiarazi'.
- erasi* 1,1.
- Eretsi (iz.) 'iritzi'. *erechijac* 11,2; bere *erechijan* 10,5.
- Eretxiko (adj.) 'ustezko'. milagro *erechi-cuak* 13,2. Ik. 75 oharra.
- Erija (iz.) 'feria, azoka'. *Erijaan* 6,3.
- Eri (iz.) 'era, mota'. *erico* 10,4.
- Eritxi (ad.) 'iritzi'.
- *derichazu* 'deritzue' 9,2(2).
 - *erichon* 'zeritzon' 10,5; 13,1.
- Erreskat (iz.) 'berreskuraketa'. *errescata* 4,2.
- Eruan (ad.) 'eroan, eraman'.
- Aurkitu dugun adizkiak "eroan" suposatzen du.
- *eruan* (sic *-u*) 'eroan' 8,1; 10,2; 13,1; *eruatzen* 13,1.
 - *daroiazan* 'daramatzen' 7,3. Erlat. perpausean.
- Eskojia (iz.) 'aukera'. *escojian* 'aukeran, hautatzeko' 11,1.
- Eskubide (iz.) 'ahalmen, facultas'. *escubidia* 10,5. Ik. *Deretxo*.
- Espalda/Ezpalda (iz.) 'sorbalda'. *espaldetaco* 11,4; *espaldetatic* 13,2; *ezpaldaz* 7,1; *ezpaldetaco* 13,2.
- Etorri (ad.) 'etorri, heldu'.
- *etorri* 'etorri' 3,1.
 - *betor* 'betor' 2,2; 12,4(2).
 - *betoz* 'betoz' 2,4.
 - *dator* 'dator' 8,2.
 - *datorcazan* 'datozkion' 3,1; 12,2. Erlat. perpausean.
 - *datorcon* 'datorkion' 5,3. Ut s.
 - *datorrela* 'datorrela' (= *dator*) 9,2.
 - *datorren* 'datorren' (= *dator*) 10,4.
 - *datorzan* 'datozen' (= *datoz*) 2,2.
 - *etorcon* 'zetorkion' 4,3.
 - *etorren* 'zetorren' 6,3.
 - *etorren* 'zetozen' 7,1.
 - *etorzan* 'zetozen' 6,3; 16,5(2).
 - *zatoz* 'zatozte' 14,2.
- Euki (ad.) 'eduki, izan'.
- *euqui* 'eduki' 6,3.

- *dauca* 'dauka' 6,3; etab.
- *daucazan* 'dauzkan' (= *dauzka*) 2,2; 9,2.
- *daucazu* 'daukazue' 14,2.
- *daucazun* 'daukazuen' (= *daukazue*) 14,2.
- *dauquez* 'dauzkate' 11,3.
- *eucan* 'zeukan' 7,1; 10,4; 10,5; 11,2; 12,3(2).
- *eucala* 'zeukala' 12,4.
- *eucazan* 'zeuzkan' 11,2; 13,2.
- *euqueen* 'zeukaten' 15,2.
- *euqueena* 'zeukatena' 11,3.
- *euquian* 'zukeen' (?) 12,2.
- *neucan* 'neukan' 5,3.
- *zaocaz* 'zauzkate' 7,4.

Falsakeria (iz.) 'faltsukeria, ezpikeria'. *falsaquerija* 6,4(2).

Gah (iz.) 'gatz, gaitz'. *gah* andijeen 1,2; *gah* andi 1,2.

Gaiski (adb.) 'gaizki'. *gaisqui* 10,3.

Gaisto (adj.) 'gaizto'. *gaistuac* 12,2.

Garuin (iz.) 'garun, burumuin'. *garuñetaraiño* 12,2.

Gau (iz.) 'gau'. *gabian* 4,3; *gaubaren* 6,3.

Gixo (iz.) 'gaixo, eri'. *guisuak* (sic) 4,1; *Guixuac* 4,4; 9,2.

Guenian (pos.) 'ondoren'. *guenian* 14,2.

Gura izan (ad.) 'nahi izan'. *gura leuque* 11,4; *guraco deusunic* 1,1; etab. Ik. *Nahi izan*'

Ibilli (ad.) 'ibili'.

- *ibilli* 'ibili' 10,1.
- *dabillan* 'dabilen' (= *dabil*) 11,3.
- *ebillan* 'zebilen' 8,2.
- *ebillzan* 'zebiltzan' 7,1.
- *ebillzala* 'zebiltzala' 7,1.
- *ebilzan* 'zebiltzan' 7,1.
- *zabilz* 'zabiltzate' 7,1(2); 10,1.

Ikusi (ad.) 'ikusi'.

- *icusi* 'ikusi' 11,4.
- *dacusanian* 'dakusanean' (= *dakusa*) 6,2.

Iñor (io.) 'inor, beste'. *iñoren* pecatubac 1,2(4); *iñor gaitic* 1,2.

* Io (ad.) 'esan'.

- *diño* 'dio' 6,3; 9,2.
- *diñozu* 'diozu' 9,2; 14,2(2).
- *dinozu* (sic -n-) 'diozue' 14,2.
- *diñuala* 'dioela' 9,2.
- *diñue* 'diote' 9,3; 12,4.

* *Iraun* (?) (ad.) 'esan'.

- *iraun* 'jasan, nozitu' 2,2.
- *dirause* 'esaten die' 3,1; 7,1; 10,5; 11,1.
- *dirausé* 'esaten die' 12,4.
- *dirauso* 'esaten dio' 13,4.
- *dirausud* (sic) 'esaten dizuet' 14,2.
- *dirausut* 'esatendizut' 8,1.
- *dirausut* 'esaten dizuet' 14,2(4).

Ipini (ad.) 'ipini, ezarri, jarri'. *ipini* 11,4; *ipintia* 12,2.

Itxaan (ad.) 'itxoin'. *ichaaten* 5,3.

Itxi (ad.) 'utzi, laga'. *ichico* 12,4; *istia gaitic* 7,2. Ez da erabiltzen *laga*.

Izan (ad.) 'izan'.

- *izan* 'izan' 2,2.
- *balira* 'balira' 11,3.
- *baliz* 'balitz' 7,3(2); 10,4.
- *balizate* 'balitz' 6,1.
- *da* 'da' 3,4; etab.
- *dala* 'dela' 4,3; etab.
- *dan* 'den' 2,2; etab.
- *dira* 'dira' 2,2; etab.
- *dirian* 'diren' 3,1.
- *gara* 'gara' 2,4.
- *garian* 'garen' 4;5,2.
- *jacon* 'zitzaion' 8,3; 13,2; 13,3; 14,2.
- *jacozan* 'zitzaizkion' 8,3; etab.
- *jacozala* 'zitzaizkiola' 12,1; 13,2.
- *jacozaneen* 'zitzaizkionen' 14,2.
- *jacueen* 'zitzaien' 7,1.
- *jacun* 'zaigun' (= *zaigu*) 1,2; 15,3.
- *jatzun* (sic -tz-) 'zitzaizun' 2,4.
- *jazuzan* 'zitzaizkizun' 4,4.
- *lizate* 'litzateke' 14,3.
- *nas* 'naiz' 4,3.
- *ninzan* 'nintzen' 4,3.

- *zan* 'zen' 3,1.
- *zala* 'zela' 11,2(3).
- *zara* 'zara' 8,1; 13,3.
- *zara* 'zareté' 10,1.
- *zarian* 'zaren' 8,1; 9,2.
- *zariala* 'zaretela' 10,1.
- *zarian* 'zaretén' 14,2.
- *ciñana* 'zineten' 12,4.
- *ciran* 'ziren' 3,1; etab. (beste 6 aldiz).
- *cirian* 'ziren' 4,1; etab. (beste 11 aldiz).
- *ciriala* 'zirela' 7,2(3).
- *cirianian* 'zirenean' 7,1; 8,2.

Jakin (ad.) 'jakin'.

- *jaquin* 'jakin' 10,3.
- *daqui* 'daki' 10,4.
- *daquigula* 'dakigula' (= *dakigu*) 8,3(3).
- *daquigun* 'dakigun' (= *dakiagu*) 14,2.
- *daquije* 'dakite' - *eztaquije* 13,4.
- *daquizu* 'dakizue' 1,2(2); 11,1.
- *equijan* 'zekien' 8,3.
- *equijazan* 'zekizkien' 4,2.
- *equijeen* 'zekiten' 14,2.
- *equijeela* 'zekitela' (= *zekiten*) 7,1.

Jarin/Jario (ad.) 'jarin, jario'.

- *erijozazan* 'zerizkion' 12,2.

Juan (ad.) 'joan'.

- *juan* 'joan' 5,3; 9,1.
- *dua* 'doa' 12,4.
- *Guazan* 'goazen' 2,3; *guazan* 5,2.
- *zuaz* 'zoaz' 5,1.

Luur (iz.) 'lur'. *Luurra* 15,2; *luurrac* 8,3; *luurraren* 4,3; *luurrera* 7,2; *luurreraiño* 5,4; 8,1; *luurretic* 8,2; *lurretic* (sic -u-) 7,1; 7,2.

Ujale (iz.) 'uholde'. *ujaleen* 1,1.

Ukabilda (iz.) 'ukabilkada'. *vcabildac* 10,2.

Zaintu (ad.) 'zelatatu, barrendatu'. *zaintu* 10,1; *zaintuco* 10,1.

Zarratu (ad.) 'itxi, hertsí'. *Zarratuco* 7,3.

ADIZKITEGIA

Baguensquijo. Ik. *Edun.	Dacarzuzan. Id.	Deusanari. Id.
Balei. *Edin.	Daqui. Jakin.	Deusaz. Id.
Baleijue. Egin.	Daquigula. Id.	Deusazan. Id.
Baleu. *Edun.	Daquigun. Id.	Deusazanian. Id.
Baleuse. Id.	Daquje. Id.	Deusazu. Id.
Baleuséc. Id.	Daquizu. Id.	Deusazula. Id.
Balira. Izan.	Daquizuzan. *Edin.	Deuse. Id.
Baliz. Id.	Dacusanian. Ikusi.	Deusé (bis). Id.
Balizate. Id.	Dala. Izan.	Deusedan. Id.
Bedi. *Edin.	Dan. I.	Deuséc. Id.
Bei. Id.	Daroiazan. Eroan.	Deusecla. Id.
Beite. Id.	Dator. Etorri.	Deuseen (bis). Id.
Betor. Etorri.	Datorcazan. Id.	Deusenian. Id.
Betoz. Id.	Datorcon. Id.	Deusezanian. Id.
Da. Izan.	Datorrela. Id.	Deuscu. Id.
Dabe. *Edun.	Datorren. Id.	Deuscubenez. Id.
Dabé. Id.	Datorzan. Id.	Deuscuzan. Id.
Dabee. Id.	Dau. *Edun.	Deust. Id.
Dabée. Id.	Dauca. Euki	Deustazanian. Id.
Dabéc. Id.	Daucazan. Id.	Deustazu. Id.
Dabeela. Id.	Daucazu. Id.	Deustazuz. Id.
Dabeen. Id.	Daucazun. Id.	Deusud (bis). Id.
Dabeenac. Id.	Dauquez. Id.	Deusudaz. Id.
Dabeenian. Id.	Dedilla. *Edin.	Deusugu. id.
Dabela. Id.	Dedin. Id.	Deusun. Id.
Daben. Id.	Deidazun. Egin.	Deusunic. Id.
Dabeneen. Id.	Deijodan. Id.	Deusut. Id.
Dabenian (bis). Id.	Deijogun. Id.	Diño. *Io.
Dabillan. Ibilli.	Deijueen. Id.	Dinozu. Id.
Dago. Egon.	Deiquezun. Id.	Diñozu. Id.
Dagoz. Id.	Deizun. Id.	Diñuala. Id.
Dagozala. Id.	Deizunian. Id.	Diñue. Id.
Dagozan. Id.	Derichazu. Eritxi.	Dira. Izan.
Daguan. Id.	Deusa. *Edun.	Dirause *Iraun (?)
Daidan. Egin.	Deusadana. Id.	Dirausé. Id.
Daigun. Id.	Deusagu. Id.	Dirauso. Id.
Daijan. Id.	Deusagun. Id.	Dirausud. Id.
Daizan. Id.	Deusaguz. Id.	Dirausut (bis). Id.
Dacargu. Ekarri.	Deusala. Id.	Dirian. Izan.

Ditezela. *Edin.	Eguan. Id.	'Izu. Id.
Ditubala, *Edun.	Eguanac. Id.	Jacon. Izan.
Dituban. Id.	Ecarreena. Ekarri.	Jacozala. Id.
Ditubanian. Id.	Ecarreenian. Id.	Jacozan. Id.
Ditubee, Id.	Ecarrenian. Id.	Jacozaneen. Id.
Ditubeelaco. Id.	Equijan. Jakin.	Jacueen. Id.
Dituz. Id.	Equijazan. Id.	Jacun. Id.
Dod. Id.	Equijeen. Id.	Jatzun. Id.
Dogu, Id.	Equijeela. Id.	Jazuzan. Id.
Dot. Id.	Erabillala. Erabilli.	Lei. Egin.
Dozu (bis). Id.	Erijozazan. Jarin. jario.	Leijan. Id.
Dozunari, id.	Erichon. Eritxi.	Leijeen. Id.
Dua. Juan.	Etorcon. Etorri.	Leijo. Id.
Ebala. *Edun.	Etorren (bis). Id.	Leijola. Id.
Eban. Id.	Etorzan. Id.	Leiquijon. Id.
Ebanian. Id.	Eucala. Euqui.	Leiquijuena. Id.
Ebeela, Id.	Eucan. Id.	Leiteque. *Edin.
Ebééla. Id.	Eucazan. Id.	Leitian. Id.
Ebeelaco. Id.	Euqueen. Id.	Leiz. Egin.
Ebeen. Id.	Euqueena. Id.	Leuque. *Edun.
Ebeena. Id.	Euquian. Id.	Lizate. Izan.
Ebeenac, Id.	Eusala. *Edun.	Nabe. *Edun.
Eben. Id.	Eusan. Id.	Nago. Egon.
Ebéneco. Id.	Euseen (bis). Id.	Nas. Izan.
Ebenian. Id.	Euséen. Id.	Nau. *Edun.
Ebillan. Ibilli.	Euseela (bis). Id.	Nebala. Id.
Ebillzan. Id.	Euseelaco. Id.	Neban. Id.
Ebillzala, Id.	Euseezala. Id.	Neizu (bis). Egin.
Ebilzan. Id.	Euseezan. Id.	Neucan. Euki.
Eguidazu, egin.	Eusezan. Id.	Neusula. *Edun.
Eguiguzu. Id.	Euscun. id.	Ninduban. Id.
Eguijan. Id.	Eusubeen. Id.	Ninzan. Izan.
Eguijela. id.	Gagozanetarin. Egon.	Nozu. *Edun.
Eguijozu (bis)9. Id.	Gaitian. *Edin.	Zabilz. Ibilli.
Eguijuezu. Id.	Gara. Izan.	Zaite. *Edin.
Eguizu (bis). Id.	Garian. Id.	Zaitez (bis). Id.
Eguizun. Id.	Guenduque. *Edun.	Zaitequez. Id.
Egozan. Egon.	Guenduquez. Id.	Zaitubala. *Edun.
Egozanac. Id.	Guazan. Juan.	Zaituban. Id.
Egozaneen. Id.	Iguzu. Egin.	
Eguala. Id.		

Zaitubeelaco. Id.
 Zaitudaz. Id.
 Zaituz. Id.
 Zala. Izan.
 Zan. Id.
 Zaocaz. Euki.
 Zara (bis). Iza.
 Zariala. Id.
 Zarian (bis). Id.

Zatoz. Etorri.
 Zedin. *Edin.
 Zeitequian. Id.
 Zenduban (bis). *Edun.
 Zendudazan. Id.
 Zenduzan. Id.
 Ciñan. Izan.
 Ciran. Id.
 Ciriála. Id.

Cirian. Id.
 Cirianian. Id.
 Citubala. *Edun.
 Cituban. Id.
 Citubeela. Id.
 Citubeen. Id.
 Zuaz. Juan.

